*1.1.2. Plan Orokorraren tramitazio berriari lehenbailehen ekitea.*

***“1. Contenido principal de la sentencia***

*1.1 La sentencia contraria al Plan General aprobado en el 2017 la conocimos a mediados de junio. Desde entonces hemos analizado el tema minuciosamente desde el punto de vista legal y urbanístico, hemos tratado las principales consecuencias que puede tener, y hemos recogido una serie de opiniones cualificadas. Todo ello nos ha llevado a tomar dos decisiones principales para afrontar la compleja situación que se plantea:*

*1.1.1 Presentar un recurso de casación ante la sentencia contraria al Plan General*

*1.1.2 Comenzar cuanto antes con la tramitación del Plan General.*

*Lehenbiziko puntua azaltzeari ekingo diogu: zer dio sententziak?*

*Laburbilduta, ontzat ematen du helegitea, errekurtsogileek azaldutako eta aldeztutako zortzi arrazoietatik bi hartu ditu aintzat; zehazki, telekomunikazioen arloan aplikatu beharreko sektore-araudian aurreikusitako txostena ez egiteari eta balio agrologiko handiko lurzoruei buruzko txostena ez egiteari buruzkoak. Bi arrazoi formal. Beraz, espresuki errefusatzen ditu gainerako arrazoi guztiak, baita izaera materialekoak ere, hau da, hertsiki hirigintzakoak, eta errekurtsogileek Hondarribiko Hiri Antolamendurako Plan Orokorraren "3.6. Eskapatxulo" eremuan dituzten interes partikularrei dagozkienak.*

*Eta, besteak beste, sententziak honako hau ere esaten du: epaiaren aurka kasazio-errekurtsoa jar daitekeela Auzitegi Goreneko Administrazioarekiko Auzien Salan eta Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzien Salan bertan, Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen Legearen 86. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoaren arabera.*

*Comenzaremos por la exposición del primer punto: ¿qué dice la sentencia?*

*En resumen, valora positivamente el recurso, y de entre las ocho razones expuestas y esgrimidas por los recurrentes tiene en consideración dos; concretamente, las referentes a la no realización del informe previsto en la normativa sectorial a aplicar en el ámbito de las telecomunicaciones y a la no realización del informe acerca de los suelos de gran valor agrológico. Dos razones formales. Por lo tanto, rechaza expresamente todas las demás razones, incluidas las materiales, es decir, estrictamente las urbanísticas y las correspondientes a los intereses particulares que tienen los recurrentes en el área "3.6 Eskapatxulo" del Plan General de Ordenación Urbana.*

*Y entre otras cosas, la sentencia declara lo siguiente: que contra la misma cabe interponer recurso de casación ante la Sala de lo Contencioso Administrativo del Tribunal Supremo y ante la propia Sala de lo Contencioso Administrativo del Tribiunal Superior de Justicia de la Comunidad Autónoma Vasca, según lo dispuesto en el artículo 86 y siguientes de la Ley reguladora de la Jurisdicción Contencioso Administrativa.*

## ***2. Kasazio-errekurtsoa jartzeko aldeko arrazoiak***

## ***2. Razones a favor de interponer recurso de casación***

*2.1. Badaude errekurtsoa jartzeko zenbait argudio nagusi:*

*2.1.1. Lehenik eta behin, bi txosten horiek falta direla aipatzen da, eta txosten horien derrigortasuna Auzitegiak zentzu hertsian interpretatzen duelako, legeak eskatzen duenetik harago, adibidez telekomunikazioen arloan, txosten hori ez bailitzateke beharrezkoa izango, Hondarribiko Hiri Antolamendurako Plan Orokorraren Agiriak ez baitio eragiten komunikazio elektronikoen*

*2.1. Existen varios argumentos principales para interponer el recurso:*

*2.1.1. En primer lugar, se hace referencia a la ausencia de ambos informes, cuya preceptividad es interpretada por el Tribunal en sentido estricto, más allá de lo exigido por la ley, por ejemplo en materia de telecomunicaciones, ya que dicho informe no sería necesario puesto que el documento del Plan General de Ordenación Urbana de Hondarribia no afecta al despliegue*

*sare publikoen hedapenari -Lege sektorialak, nahitaezko txostenaren funtsezko elementu gisa aipatzen du hori. Eta gauza bera esan daiteke balio agrologiko handiko lurzoruei buruzko txostenari dagokionez.*

*de las redes públicas de comunicaciones electrónicas – la Ley sectorial lo menciona como elemento esencial del informe preceptivo-. Y otro tanto se puede decir sobre el informe acerca de los suelos de gran valor agrológico.*

*2.1.2. Eta, bigarrenik, neurriz kanpokotzat jotzen dugu arrazoi horien ondorioa eta eragina Hondarribiko Hiri Antolamendurako Plan Orokorraren behin betiko onespenaren erabakia erabat baliogabetzat jotzea izatea, kontuan izanik horrek Plan Orokor horren eremu guztietako determinazio guztiei eta bakoitzari eragiten diela, nahiz eta emandako arrazoiak sektorialak izan, eta, beraz, Planean dauden zehaztapen eta eremu askok ez duten zerikusirik gai horiekin. Iritzi hau, une honetan, lege artikulu eta azterlan juridikoen egile garrantzitsu eta ezagun gehienek doktrinalki aldezten duten jarrera da, eta, gainera, esparru judizialera jauzi egin du, Udalaren lege aholkulariak bere txostenean jasoa duen bezala. Adibide nabarmena da Kanarietako Justizia Auzitegi Nagusiaren epaia Auzitegi Gorenaren* ***2020ko maiatzaren 27ko*** *epaiak berretsi berri duela. Epaiak, instantzia-epaiaren aurka jarritako kasazio-errekurtsoak ebazteko, bere seigarren zuzenbide-oinarrian, hau adierazten du:*

*2.1.2 Y en segundo lugar, consideramos desproporcionada que la consecuencia y efecto de esas razones sea declaración de nulidad absoluta del acuerdo de aprobación definitiva del Plan General de Ordenación Urbana de Hondarribia, teniendo en cuenta que ello afecta a todas y cada una de las determinaciones de todos los ámbitos de dicho Plan General, a pesar de que las razones esgrimidas son sectoriales, y por lo tanto, a pesar de que muchas determinaciones y ámbitos contemplados en el Plan no guardan relación con estas cuestiones. Esta opinión, en este momento, es una posición doctrinalmente defendida por la mayoría de los autores relevantes y conocidos de los artículos y estudios jurídicos legales, que además ha dado paso al ámbito judicial, tal y como recoge el asesor legal del Ayuntamiento en su informe. El ejemplo más notorio de ello es que la sentencia del Tribunal Superior de Justicia de Canarias acaba de ser confirmada por la sentencia del Tribunal Supremo de* ***27 de mayo de 2020****. La sentencia, para resolver los recursos de casación interpuestos contra la sentencia de instancia, en su fundamento de derecho sexto declara lo siguiente:*

*“Hala ere, kontuan hartu behar da arau orokorra Plana erabat deusez deklaratzea bada, deuseztasun-deklarazio hori ezin bada arloka edo sektoreka egin, planeamenduaren ahala osatzen duten zehaztapen orokorretan gainerakoei eragin gabe,*

*“Ahora bien, si ha de considerarse que la regla general es la declaración de nulidad del Plan, en la medida en que esa declaración de nulidad no puede hacerse por áreas o sectores sin que se vean afectados los restantes en las determinaciones*

*zalantzarik gabe, eremu edo sektore jakin bat edo izaera bereko zehaztapen jakin batzuk indibidualizatu daitezkeenean, haien zehaztapenek eraginik ez izateko moduko indibidualizazio-maila bat baldin badute planifikatutako lurraldearen gainerakoari dagokionez, ezerk ez duela eragozten deuseztasun-deklarazioa eremu horretara edo horietara mugatzea. Are gehiago, jurisprudentziak berak irizpide hori ezarri behar du, plangintzaren berezitasunik ez duten erregelamendu-xedapenen legezkotasuna aztertzen duenean, deuseztasuna agindu zehatzetan aldarrikatu behar da, eta horrek ez du esan nahi aurkaratutako erregelamendu osoa deuseza denik, erabat deuseztzat jotako manuetatik etor daitezkeenak salbu.".*

*generales que componen la potestad del planeamiento, es indudable que cuando pueda individualizarse una concreta zona o sector, o unas concretas determinaciones de igual naturaleza, que tengan un grado de individualización tal que sus determinaciones no afecten al resto del territorio planificado, nada impide que pueda limitarse la declaración de nulidad a esa zona o zonas concretas. Es más, ese debe ser el criterio que impone la propia Jurisprudencia, que cuando examina la legalidad de las disposiciones reglamentarias que no tienen las peculiaridades del planeamiento, la nulidad se predica de preceptos concretos, sin que ello comporte la nulidad de todo el reglamento impugnado, a salvo de aquellos que pudieran traer causa de los preceptos declarados nulos de pleno derecho".*

*2.1.3. Badago beste arrazoi bat hartutako erabakien erakundearen koherentziarekin zerikusia duena. Izan ere, Hondarribiko Udalak 2017. urtean onartu zuen Plan Orokorrak beste administrazio guztien aldeko iritzia jaso baitu urteetan zehar, eta Udalaren hirigintza-planeamendu tresna nagusiaren alde egitera behartuta dago Hondarribiko Udala.*

*2.1.3 Hay otra razón que guarda relación con la coherencia de las decisiones adoptadas por la institución. De hecho, el Plan General aprobado en el 2017 por el Ayuntamiento de Hondarribia ha sido informado favorablemente por todas las administraciones durante años, y el Ayuntamiento de Hondarribia está obligado a apoyar el principal instrumento de planeamiento urbanístico municipal de Hondarribia.*

*2.1.4. Beste arrazoi bat segurtasun juridikoa da: 2017. urteaz geroztik abian jarri diren proiektuei, sustatzaileei eta herritarrei ahalik eta segurtasun juridiko handiena eman behar diegu, Plan Orokorrak eskaintzen duen segurtasun juridikoa eta ez 1996ko Arau Subsidiarioek emango luketena Plan Orokorra erabat baliogabetuko balitz. Eta hemen ez da ttikiena udal ekimenez bultzatutako proiektuak:*

*2.1.4. Otra razón es la seguridad jurídica: debemos dotar de la máxima seguridad jurídica a los proyectos puestos en marcha a partir del año 2017, a los promotores y ciudadanos, la seguridad jurídica que proporciona el Plan General, y no la que proporcionarían las Normas Subsidiarias si se invalidara completamente en Plan General. Y en ello lo más nimio no son los proyectos*

*Presa eta Damarriko etxebizitza-sustapenak, Mendelu-Eskapatxuloko Plan Berezia, mugikortasun-proiektuak…*

*impulsados por iniciativa municipal: Las promociones de vivienda de Presa y Damarri, el Plan Especial de Mendelu-Eskapatxulo, los proyectos de movilidad…*

*2.1.5. Beste arrazoi bat martxoaz geroztik bizi dugun egoera da. Bizi dugun krisi nagusi honen aurrean, sendotasunak behar ditugu denok, eta hiriaren garapen ekonomikorako ere egokiagoa da, pizgarri gertatu da azken urteotan eta halaxe izaten segitzea espero dugu datozen urteotan.*

*2.1.5 Otra razón principal es la razón que estamos viviendo desde marzo. Ante esta gran crisis que estamos viviendo, todos necesitamos fortalezas, y también es más adecuado para el desarrollo económico de la ciudad, ha sido un incentivo durante los últimos años y esperamos que los siguientes años lo siga siendo.*

*2.1.6. Eta azken arrazoi modura ondoko puntuan jorratuko dugun gaiarekin du zerikusia du: bateragarria da Kasazio-errekurtsoa jartzea eta Plan Orokorraren tramitazio berriari ekitea, biak batera abia daitezke. Eta hori egitea da gure asmoa.*

*2.1.6. Y la última razón está relacionada con el tema que trataremos en el siguiente punto: la interposición de un recurso de casación es compatible con el inicio de una nueva tramitación del Plan General, se pueden iniciar ambos de forma conjunta. Y nuestra intención es hacerlo así.*

***3. Beste taldeei dei egitea errekurtsoa aurkeztearekin bat egiteko***

*Aurreko guztiak kontuan hartuta dei egiten diegu beste udal taldeei gurekin batera baiezkoa eman diezaioten helegitea jartzeari. Jakin badakigu lehenbiziko erabaki azkarra horren aurka jartzea izan zela, azkeneko Udalbatzan ikusi genuenez, baina iduritzen zaigu azterketa sendoago batek hori aldatzeko moduko erabakia ekar lezakeela hainbatengan, ez guztiengan, Abotsanitzek sententziari buruz egin zuen balorazio publikoan esandako izugarrikeriak esan eta gero, zaila izango bailitzateke bestelakorik adieraztea. Eta are zailago, han esaten dituenei eutsiz gero, lankidetza emankor baterako pausoak ematea".*

***3. Llamamiento a los restantes grupos para sumarse a la interposición de recurso***

*Teniendo en cuenta todo lo anterior hacemos un llamamiento a los otros grupos municipales para que junto con nosotros se avengan a interponer el recurso. Somos conscientes de que el primer acuerdo rápido fue oponerse a ello, tal y como lo vimos en el último Pleno, pero pensamos que un análisis más profundo podría dar lugar a una decisión modificable en algunas personas, no en todos, ya que, tras las tremendas declaraciones manifestadas en la valoración pública de la sentencia por parte de Abotsanitz, resultaría difícil señalar otra cosa. Y más difícil todavía sería, si se mantienen sus palabras, dar pasos para una colaboración fructífera".*

Alkate jaunak errekurtsoa aurkezteak arrazoirik emango zaienik ez duela esan nahi argitu du, baina ezta emango ez zaienik ere.

El Sr. Alcalde manifiesta que el hecho de presentar el recurso no implica que se les vaya a dar la razón, pero tampoco lo contrario.

Ondoren, Enparan jaunak hartu du txanda eta Abotsanitzekin lankidetzan aritzea zaila dela entzuten duten lehen aldia ez dela esan du, baina argi utzi nahi izan du behar izan denetan beraiek beraien prestutasuna azaldu diotela Gobernu Taldeari herriaren mesedetan.

Enparan jaunak arrazoi eman dio Alkate jaunari Euskal Herriko Auzitegi Nagusiak HAPOa ekainaren 25ean baliogabetu duela esan duenean eta baliogabetze horren arrazoi nagusia forma akatsak izan direla dioenean, forma akats horiek HAPOak urratutako ordenamendu juridikoan oinarrituz. Urraketa horren berri, gainera, epaileak ez duela behin bakarrik eman erantsi du Enparan jaunak, birritan baizik. Abotsanitzek 2017ko debatean HAPOak legedia urratzen zuela aurreratu zuela gogorarazi du eta lankidetzaren ateak itxi zitzaizkiola. Hala ere, lanean jarraituko dutela agindu du, ekarpenak eginez eta eskua luzatuz.

Enparan jaunak epaiak argi uzten duela erantsi du txosten horiek ez aurkezteak HAPOa baliogabetzea eragiten duela eta are gehiago, epaileak bere iritzia oinarritzeko, bere iritzia ezartzeaz gain, beste epaile batzuen iritziak ere aipatzen dituela erantsi du. Adibide gisa, arrazoi berengatik Laredoko hirigintza plana bertan behera uztearekin konparazioa egiten duela esan du eta epaiak oso argi dioela txosten horiek kasuren batean ez eskatu izanak ere ordenamendu juridikoa urratzen duela eta horrenbestez, hirigintza plan osoa dela bertan behera utzi behar dena. Gobernu Taldearen izenean Alkate jaunak esandakoa epaia neurriz kanpokoa dela gogorarazi du Enparan jaunak, Udal Abokatu Aholkulari jaunaren txostenean ere hori jasotzen dela ─epaitegian aurkeztutako argumentua ere hori izango zela gainera─. Ebazpena maiatzaren 25ekoa dela gogorarazi du eta garbi aipatzen dela txosten horiek gabe ezin dela ontzat eman hirigintza plan baten onarpena. Udal Gobernuak errekurtsoa jartzeko proposamena egin duela azaldu du, Udal Abokatu Aholkulari jaunak aipatutako arrazoietan oinarrituta, baina Enparan jaunarentzat neurriz kanpokoa dena zera dela: 2011. urteaz geroztik, hainbat epailek eman duten ebazpen bera neurriz kanpokoa dela esatea. Enparan jaunaren iritziz, Udalak ez ditu errespetatzen epaileen irizpideak gai konkretu berarekiko ematen duten ebazpenetan. Are gehiago, epaira jotzen bada, beste udalen bati

Seguidamente toma la palabra el Sr. Enparan y afirma que no es la primera vez que oye que es difícil colaborar con Abotsanitz, pero quiere dejar claro que cuando ha sido necesario ellos le han mostrado su disposición al Equipo de Gobierno en beneficio de la ciudad.

El Sr. Enparan le da la razón al Sr. Alcalde cuando dice que el Tribunal Superior del País Vasco ha anulado el PGOU el 25 de junio y que la principal razón de tal anulación han sido defectos de forma, basando tales defectos formales en el ordenamiento jurídico infringido por el PGOU. El Sr. Enparan añade que el juez no ha hecho mención en sólo una ocasión al hecho de haber infringido el ordenamiento, sino en dos ocasiones. Abotsanitz recuerda que en el debate de 2017 adelantó que el PGOU infringía la ley y que se les cerraron las puertas a la colaboración. Sin embargo, promete que continuarán trabajando, haciendo aportaciones y extendiendo la mano.

El Sr. Enparan afirma que la sentencia deja claro que la no presentación de dichos informes trae consigo la anulación del PGOU, y lo que es más, que el juez/a, para fundamentar su opinión, además de darla, hace referencia a la opinión de otros jueces/as. Como ejemplo, menciona que lo compara con el plan de urbanismo anulado de Laredo por las mismas razones, afirma que la sentencia dicta muy claramente que el no haber solicitado esos informes en algún caso también infringe el ordenamiento jurídico, y por lo tanto, que todo el plan urbanístico debe anularse. El Sr. Enparan recuerda que el Sr. Alcalde ha manifestado en nombre del Equipo de Gobierno que la sentencia es desproporcionada, que así se recoge también en el informe del Abogado Asesor Municipal –que el argumento esgrimido en el juzgado también sería el mismo-. Recuerda que la resolución es del 25 de mayo y que en ella se menciona claramente que sin tales informes no se puede dar por buena la aprobación de un plan de urbanismo. Afirma que el Equipo de Gobierno ha realizado la propuesta de interponer un recurso, basándose en las razones esgrimidas por el Sr. Letrado Asesor, pero que lo que a él le parece que resulta desproporcionado es lo siguiente: el hecho de decir que es desproporcionada la resolución dada por varios/as jueces/as desde el año 2011. En en opinión del Sr. Enparan, el Ayuntamiento no

ere gai berarengatik hirigintza plana baliogabetu zaionean, Auzitegi Gorenean  errekurtsoa aurkeztu duela esan du. 2019. urtean, hain justu, Lezamako Udalak aurkeztutako helegitea jarri du adibidetzat, tramitera ere onartu ez zena. Errekurtsoa aurkezteko segurtasun juridikoa aipatzen dela gogorarazi du Enparan jaunak eta bere iritziz gertatzen dena kontrakoa dela esan du. Errekurtsoa aurkezteak ezjakintasun juridikoa eragiten duela esan du eta epaitegiek adierazitako bideak argiak direla. Neurri honetan Udal Gobernuaren aldetik autokritika falta izugarria ikusten dutela erantsi du; 2017ko prozeduran txosten horiek falta zirenari buruzko onarpenik ez dutela entzun. Plan Orokor osoan ez zuela eraginik esatea ulertuko lukeela esan du Enparan jaunak, baina ezinbesteko dokumentuak baziren eta eskatu ere ez baziren egin, autokritikarik ez dela egin adierazi du eta ondorioak oso larriak direla. Epaiak aipatzen duena hain argia dela esan du, non bere iritziz helegitea aurkezteak bide eskasa duen. Era berean, helegitea jartzeak ondorio batzuk eragiten dituela gogorarazi du: herriarentzat kostua, ezjakintasun juridikoa, ondare ardurak, etabar.

respeta los criterios de los/as jueces/as en las resoluciones emitidas sobre un mismo tema concreto. Afirma que si se acude a la sentencia, cuando a algún otro ayuntamiento se le ha anulado el plan de urbanismo por la misma razón, ha interpuesto recurso ante el Tribunal Supremo, Menciona como  ejemplo el recurso presentado por el Ayuntamiento de Lezama el año 2019, que ni siquiera se admitió a trámite. El Sr. Enparan recuerda que se habla de seguridad jurídica para recurrir y que lo que a su juicio pasa es lo contrario. Afirma que el hecho de presentar un recurso origina desconocimiento jurídico y que los cauces indicados por los tribunales son claros. Añade que en esta medida observan una tremenda falta de autocrítica por parte del Equipo de Gobierno; que no han escuchado ningún reconocimiento sobre la falta de esos informes en el procedimiento del 2017. El Sr. Enparan manifiesta que entendería que dijera que no tenía efecto en el conjunto del Plan General, pero afirma que si eran unos documentos imprescindibles y ni siquiera se solicitaron, no se ha hecho autocrítica y que las consecuencias son muy graves. Afirma que lo que dicta la sentencia es tan claro, que a su parecer el interponer un recurso tiene un corto recorrido. Asimismo, recuerda que la presentación de un recurso tiene unas consecuencias; un costo para el municipio, desconocimiento jurídico, responsabilidades patrimoniales, etc.

Epaiak ateak itxi dizkietela esan du Enparan jaunak eta prozedura zuzena jarraituz,  denen artean hirigintza plan berri bat izateko ahalegina egitea eskatu du. Izan ere, helegitea aurkeztea bere iritziz Udalaren aldetik trikimailua dela erantsi du. Horrelako kasuak gertatu izan direla gogorarazi du eta horregatik, horren inguruko doktrina badela. Oraindik ere hirigintza planean sakontzen jarraitzen dela gehitu du, epe laburrean Hondarribiko HAPOa baliogabetuko den guztiz jakin gabe. Hori garatzen jarraitzeak herriarentzat ondorioak izango dituela aurreratu du Enparan jaunak. Aurrera aterako delako ziurtasun osoa badago, helegitea jar daitekeela erantsi du, baina zalantzak izanez gero edo Abotsanitzek uste duen moduan, helegiteak biderik ez badu, Enparan jaunak helegitea jartzeko inolako animurik ezin dela eman esan du. Enparan jaunaren iritziz, gaia Auzitegi Gorenera iristen den bezain pronto, bertan behera geratuko da, eta ez du

El Sr. Enparan manifiesta que la sentencia les ha cerrado las puertas, que siguiendo el procedimiento correcto, solicita que se realice el esfuerzo de realizar entre todos un nuevo plan de urbanismo. De hecho en su opinión la presentación de un recurso es un truco por parte del Ayuntamiento. Recuerda que se han dado casos así, y que por ello, existe doctrina al respecto. Añade que todavía se sigue profundizando en el plan de urbanismo, sin saber con certeza si se anulará el PGOU de Hondarribia. El Sr. Enparan adelanta que continuar desarrollando el plan acarreará consecuencias a Hondarribia. Añade que si existe la certeza de que saldrá adelante se puede recurrir, pero si hay dudas, o si como es el parecer de Abotsanitz el recurso no tiene posibilidades, no se puede dar ningún ánimo para interponerlo. El Sr. Enparan considera que en cuanto el tema llegue al Tribunal

uste aztergai gisa tratatuko denik ere Lezamako herriarekin gertatu zen bezala. Udal Gobernuak helegitea jartzeak lankidetzari ateak ixten dizkiola uste badu, Enparan jaunak bere taldeak hala sinisten duelako egingo duela esan du eta kasu horretan aurka bozkatuko dutela aurreratu du. Aurrera jotzen duenak aurrera ardura guztiz jotzen duela gogorarazi du eta ondorioak daudenean, ondorio horien ardurak ezinbestean eskatuko zaizkiola iragarri du. Kontra bozkatzea herriaren hobebeharrez egiten duten zerbait dela argitu du Enparan jaunak eta Udal Gobernuak ere Udalaren hobebeharrez egiten duela zalantzarik ez duela gehitu du, baina trikimailua izanez gero, horrek ondorio batzuk izango dituela ohartaraziz. Bere interbentzioarekin amaitzeko, helegiteak biderik ez duela izango sinistuta daudenez, kasazio errekurtsoa jartzearen aurka bozkatuko dutela aurreratu du.

Supremo se suspenderá, y no cree que se trate ni como objeto de estudio, tal y como ocurrió con Lezama. Si el Equipo de Gobierno cree que presentar el recurso es cerrar las puertas a la colaboración, el Sr. Enparan afirma que su grupo lo hará porque así lo cree, y adelanta que en este caso votará en contra. Recuerda que quien tira para adelante lo hace con todas las responsabilidades y anuncia que cuando haya consecuencias se les pedirán necesariamente dichas responsabilidades. El Sr. Enparan aclara que su voto en contra es por el bien de la ciudad y que no duda que el Equipo de Gobierno también lo hace por el bien del Municipio, pero que si se trata de un truco eso tendrá unas consecuencias. Para finalizar con su intervención, ya que creen que el recurso no prosperará, adelanta que votarán en contra de la interposición del recurso de casación.

Alvarez jaunak hartu du hitza ondoren bera Udalean 2007an hasi zela gogoraraziz eta HAPOaren izapidetzeari orduan ekin zitzaiola erantsiz.

A continuación toma la palabra el Sr. Álvarez, recuerda que él comenzó en el Ayuntamiento en el 2007, y añade que fue entonces cuando se inició la tramitación del PGOU.

Álvarez jaunak gogorarazi du bere taldea abstenitu egin zela Plan Orokorraren gaian. Esan du HAPOn alokairuko etxebizitzak, Mendelu eraberritzeko laguntzak, Alde Zaharra berritzekoak, etb. sartzea lortu zutela. Baina azken unean, hau da, behin-behineko onespenetik behin betikora bitartean, zenbait mugimendu izan zirela, adibidez Zaldunbordakoa, tanatorioari buruzkoa…eta ez ziela konbentzitu. Erantsi du gai batzuk hobe zitezkeela eta zegoena ez zutela gustuko pentsatu zutela. Gogorarazi du garai hartan Zaldunborda jarduera ekonomikoko eremu gisa definitzen zela eta Gobernu Taldearentzat EHJANren epaia lapurreta izan zela, Gobernu Taldearen ustez berak ondo egin duela, baina ezetz esan zaiola. Erantsi du epaiak oinarrizkoa eta traszendentala den segurtasun eza dakarrela, eta ez dela autokritikarik egon. Esan du EHJANren epaiak HAPO baliogabea dela adierazi duela, baina pentsatzen duela bere epaia ez dela arbitrarioa izan, pentsatzeko moduko seriotasuna eta izaera duela EHJANk, eta berez seriotasun juridikoa eta jurisprudentzia eskuan dituela, iritzi duela Plana ez dagoela osatuta.

El Sr Alvarez recuerda que su grupo se abstuvo en el tema del Plan General. Dice que consiguieron que en el PGOU se incluyeran viviendas de alquiler, ayudas para la renovación de Mendelu,de la Parte Vieja, etc. Pero que en el último momento, es decir, desde la aprobación provisional a la definitiva, hubo unos movimientos como el de Zaldunborda, el tanatorio… y no les convenció. Añade que consideraron que había cuestiones mejorables y que no les gustó lo que había. Recuerda que en aquella época Zaldunborda se definía como zona de actividad económica y que para el Equipo de Gobierno la sentencia del TSJPV ha supuesto un atraco, que el Equipo de Gobierno piensa que lo ha hecho bien, pero que se le ha dicho que no. Añade que la sentencia supone una inseguridad jurídica fundamental y trascendental, y que no ha habido ninguna autocrítica. Dice que el TSJPV ha fallado que el PGOU es nulo, pero que considera que el TSJPV cuenta con una seridad y una entidad suficiente como para pensar que su fallo no ha sido arbitrario, sino que con seguridad jurídica y con la jurisprudencia en la mano, ha considerado que el Plan no está completo.

Álvarez jaunak gogorarazi du beste bi errekurtso daudela, eta ea berak publikotasuna defendatzen duen galdetu izan diotenean, baietz erantzun duela. Hala ere, gogorarazi du Udalak Zaldunbordako lurrak kudeatu zituela, lehiaketa publiko bat burutu zuela eta esleipenduna Higertoki enpresa pribatua izan zela.

El Sr Alvarez recuerda que existen otros dos recursos más y que cuando le han solido preguntar si él defiende lo público, dice que sí. Sin embargo, recuerda que el Ayuntamiento gestionó las tierras de Zaldunborda, y que llevó a cabo un concurso público y la adjudicataria fue la empresa privada Higertoki SL.

Bere interbentzioarekin jarraitu du, eta esan du HAPO alde batera uzten bada, hau da, baliogabea deklaratzen bada, indarrean geratzen direnak Arau Subsidiarioak direla, eta ezin dena dela Arau Subsidiarioen bidez tanatorioa, Montañenea, Basako…egin.

Continúa su intervención y dice que, si se deja a un lado el PGOU, es decir, si se declara nulo, lo que queda vigente son las Normas Subsidiarias y añade que lo que no se puede hacer mediante las NNSS es el tanatorio, Montañenea, Basako, etc.

Gogorarazi du egoera horren aurrean Udalak Udal Abokatu Aholkulariari txosten bat egitea enkargatu ziola eta errekurtsoaren gaian, uler dezakeela Gobernu Taldeak errekurritzea planteatzea eta aldi berean, badaezpada ere HAPO berri bat proposatzea. Esan du hori dela, eta bere taldearen jarrera Udalak errekurtsoa aurkeztearen aurkakoa dela, ez baitu nahi HAPOn markatutako ibilbidearen eredua jarraitu. Álvarez jauna Zaldunborda proiektuaren eta horrek dakarren eredu fiskalaren aurka dago erabat. Esan du % 84 zerbitzu duen hiri batek ez duela gehiago behar. Ez dago ados zerbitzuetarako lurzoru gehiago jartzearekin, industriarako jarri beharrean.

Recuerda que, ante la situación, el Ayuntamiento encargó al Sr Abogado Asesor Municipal la emisión de un informe y que en el tema del recurso, puede entender que el Equipo de Gobierno plantee recurrir y paralelamente, plantear por si acaso un nuevo PGOU. Por ello, dice que la postura de su grupo es contraria a que el Ayuntamiento presenté un recurso, porque no quiere perpetuar el modelo de la hoja de ruta marcada en el PGOU. El Sr Alvarez se muestra totalmente en contra del proyecto de Zaldunborda y del modelo fiscal que representa. Dice que una ciudad que cuenta con un 84% de servicios no necesita más. No comparte que se destine más terreno para el tema de servicios y no se destine para industria.

Erantsi du Eusko Jaurlaritza etorkizunari begira BPGren % 40 industria eredua izatea pentsatzen ari dela, eta eskatu du Hondarribiak ere gai horretan laguntzea. Ez du uste gaur egungo HAPO egokia denik Hondarribiarentzat, eta horregatik ados dago berri bat egitearekin. Esan du Gobernu Taldeak errekurtsoa bere argudioekin aurkeztuko duela, eta urrian edo azaroan onetsi edo ezetsiko dela. Era berean esan du ez dakiela errekurtsogileek kautelazko neurriak hartzea eskatuko duten. Nolanahi ere, Álvarez jaunak esan du Udala nahaspila ederrean sartuta dagoela, segurtasun juridiko gabezia sortzen ari baita, batez ere inbertitu nahi duen jendearen artean. Ez dago errekurritzearekin ados, bere ustez Gobernu Taldea oker dabil, hala ere, Álvarez jauna laguntzeko prest agertu da. Erantsi du bere ustez tanatorioa egitea ere akatsa dela, baita Zaldunbordako eredu ekonomikoa eta zerbitzuen sektorearen alde egitea

Añade que el Gobierno Vasco está planteando de cara al futuro que el 40% del PIB sea modelo industrial y pide que desde Hondarribia, también se contribuya a esta cuestión. No considera que el actual PGOU sea adecuado para Hondarribia y por ello, se muestra de acuerdo con emprender uno nuevo. Dice que el Equipo de Gobierno presentará el recurso con sus argumentos, y que hacia octubre o noviembre se estimará o se desestimará. Tamibén dice que desconoce si los recurrentes solicitarán que se adopten medidas cautelares. En cualquier caso, el Sr Alvarez dice que el Ayuntamiento está metido en un lío importante porque está generando gran inseguridad jurídica sobre todo entre la gente que pretende invertir. No se muestra de acuerdo con recurrir, considera que el Equipo de Gobierno se está equivocando, sin embargo, el Sr Alvarez se muestra dispuesto a colaborar. Añade que también considera que el

ere, are gehiago pandemiari buruz ikusitako guztia kontuan izanda. Amaitu du esanez Zaldunbordako oulet-a marra gorri bat dela eta iraganeko eredua.

tanatorio es un error, así como el modelo económico de Zaldunborda y que apostar por el sector servicios también lo es, más con todo lo visto sobre la pandemia. Concluye diciendo que el outlet de Zaldunborda supone una línea roja y es un modelo del pasado.

Jarraian, Isasi jaunak hartu du txanda eztabaida ez dela juridikoa esanez, soziala dela baizik. Udalak oso zorte txarra duela gogorarazi du; legealdian gauzak oso gaizki ateratzen ari zaizkiola, alegia. Ikuspegi politiko batetik sintonia bereko interes taldekoek helegiteak jartzen badituzte eta udal gobernuak lehia galtzen badu, udal gobernuak horrelako planteamenduak egiten dituenean, aldez aurretik pentsatu beharko lukeela non dauzkan lagunak eta non arerioak. Hori alde batetik, eta bestetik, udal gobernuak bereari eutsi behar diola ulertzen duela erantsi du Isasi jaunak, baina oraingoan jokoan herri eredua dagoela gogorarazi du, ziurgabetasun juridiko-ekonomikoa dagoela eta pandemiaren ostean kolpe bat dela. Gai serioa dela gehitu du, bera errekurtsoaren kontra dagoela, ez, ordea, gai juridikoagatik, eta aurka badago, eredu berri baten alde egin behar dutelako dela. Isasi jaunak Gobernu Taldeari bere gehiengo osoaz egiten duen kudeaketaz hausnarketa egitea eskatu dio, gutxieneko batzuetan elkarren artean ulertzera kondenatuta daudela erantsi du eta oposizio aldetik, zenbait puntutan amore ematera prest daudela adierazi du. Bukatzeko, berriz ere helegitearen aurka dagoela esan du, elkarrekin planteamendu berrien alde egin behar dutela azpimarratuz eta oposizioari dagokionez, udal gobernuak planteamendu integratzaile baten alde egin beharko lukeela ohartaziz.

A continuación toma la palabra el Sr. Isasi y afirma que el debate no es jurídico, sino social. Recuerda que el Ayuntamiento tiene muy mala suerte; es decir, que le están saliendo muy mal las cosas en la legislatura. Desde un punto de vista político, si los grupos que comparten una sintonía común interponen recursos y si el gobierno municipal pierde, el gobierno municipal debiera pensar cuando realiza dichos planteamientos dónde tiene amigos y dónde enemigos. Eso por un lado, y por otro, el Sr. Isasi añade que entiende que el gobierno municipal debe mantener su criterio, pero recuerda que lo que actualmente está en juego es el modelo de ciudad, que hay una inseguridad jurídico-económica y que tras la pandemia es un duro golpe. Añade que es un tema serio, que él está en contra del recurso, pero no por el tema jurídico, que si está en contra, es porque deben actuar a favor de un nuevo modelo. El Sr. Isasi le pide al Equipo de Gobierno que reflexione sobre la gestión que realiza con su mayoría absoluta, añade que están condenados/as a entenderse mutuamente en unos mínimos y afirma que desde la oposición, están dispuestos/as a ceder en algunos puntos. Para finalizar, repite que está en contra de la interposición del recurso, subrayando que deben apostar conjuntamente por nuevos planteamientos, y en lo que se refiere a la oposición, advirtiendo de que el gobierno municipal debiera actuar a favor de un planteamiento integrador.

Ondoren, Alkate jaunak hartu du hitza Isasi jaunaren azken eskaintza eskertuz, nahiz eta hiru taldeak batera aritzea beste kontu bat izango dela esan duen. Alkateak epaiarekin pozik ez daudela adierazi du eta eta badakitela gauzak ez direla ondo egin, izan ere, bi txostenak aurkeztu ez badira, gauzak ondo egin ez direlako dela. Dena den, hirigintza aldetik administrazio sektorial guztietatik aldeko txostenak jaso direla ere gogorarazi du eta epaia neurriz kanpokotzat jo du.

A continuación toma la palabra el Sr. Alcalde, agradeciendo la última oferta sel Sr. Isasi, a pesar de que afirma que trabajar conjuntamente los tres grupos será harina de otro costal. El Sr. Alcalde manifiesta que no están contentos/as con la sentencia y que saben que las cosas no se han hecho bien, ya que si no se han presentado los dos informes, es porque no se han hecho las cosas bien. De todas maneras, recuerda que urbanísticamente se han recibido informes favorables de todas las administraciones sectoriales, y ha considerado desproporcionada la sentencia.

Ondoren, Álvarez jaunarengana zuzendu da eta esan dio erabili dituen “lapurreta”, “gaueko lana eta maltzurkeria”… hitzak ez zaizkiola gustatu. Erantsi du denak jabetzen direla HAPOren garrantziaz, Álvarez jaunak ados ez zeuden zenbait puntu aipatu dituela eta Plana hori bakarrik dela ematen duela, baina ez dela hala. Gogorarazi du etxebizitza publikoa ere badagoela eta horrekin kezkatuta daudela. Gogorarazi du aurreko legealdia 2015ean hasi eta 2019an bukatu bazen, Plana 2017an onartu zela, eta argi utzi du 2017 urtea ez zela legealdiaren amaiera izan. Beste alde batetik, erantsi du ez duela inola ere EHJAN zalantzan jartzen, eta ez duela zalantzan jarri behar.

A continuación, se ha dirigido al Sr Alvarez para decirle que el léxico empleado tal como “atracar”, “nocturnidad y alevosía”…no ha gustado al Sr Alcalde. Añade que todos son conscientes de la magnitud del PGOU, que el Sr Alvarez ha nombrado puntos en los que no estaban de acuerdo y que da la sensación de que el Plan es sólo eso, cuando no es así. Recuerda que también hay vivienda pública y que ello les preocupa. Recuerda que, si la anterior legislatura comenzó en el año 2015 y terminó en 2019, el Plan se aprobó en 2017, dejando claro que el año 2017 no fue final de legislatura. Por otro lado, añade que en absoluto pone en duda al TSJPV, ni tampoco debe hacerlo.

Bere interbentzioarekin jarraituz, Abotsanitz udal taldearekin ez dagoela ados adierazi du Alkate jaunak; errekurtsoak ezjakintasun juridikorik ez duela planteatzen esan du. Hori bakarrik ez, trikimailua dela iradokitzen denean ere ez dela hala. Dendarteanek aurkeztu zuenean, eskubide osoz aurkeztu zuela gogorazi du, beraz, Udalak ere zergatik ezin duen aurkeztu galdetu du. Hala ere, gauza batean zalantzarik ez dutela esan du: Abotsanitz taldeak herritarren alde egiten duela, eta Abotsanitz taldeak ere gauza bera pentsatzen duela Gobernu Taldearen lanaz. Oposizio lana kontrola egitea dela argi geratzen zaiola erantsi du Alkate jaunak, hala eta guztiz ere, “trikimailu gisa erabiltzen duenari erantzukizuna eskatuko diogu” esatean ze adierazi nahi den ez zaiola argi geratzen adierazi du. Eskubide estatu batean egonda, errekurtsora ezin den jo galdetu du Alkate jaunak, gainera aldez aurretik bi adar horietatik joan nahi dutela adierazi dutenean. Batzuentzat kontraesana dena, beraientzat osagarria eta bateragarria dela erantsi du. Epaitegi baten epaiaren berri auzitegi barrura sartu baino lehen izatekotan, dauden tokian ez liratekeela egongo azaldu du Alkate jaunak eta azkenik, egin den lana hainbat alorretan hain txarra ez dela adieraziz bukatu du bere interbentzioa.

Siguiendo con su intervención, el Sr. Alcalde afirma que no está de acuerdo con el grupo municipal Abotsanitz; dice que el recurso no origina desconocimiento jurídico. Y no sólo eso, que cuando dice que se trata de un truco no lo es. Que cuando lo presentó Dendartean lo hizo con todos los derechos, y pregunta por qué el Ayuntamiento no puede presentarlo. Sin embargo, afirma que no les cabe duda en un tema: en que el grupo Abotsanitz trabaja a favor de los/as ciudadanos/as, y en que el grupo Abotsanitz piensa lo mismo del trabajo del Equipo de Gobierno. El Sr. Alcalde añade que le queda claro que el trabajo de la oposición es controlar, sin embargo afirma que no le queda claro que se quiere decir al afirmar que “a quien lo utilice como truco le pediremos responsabilidades”. El Sr. Alcalde pregunta si no se puede recurrir al recurso estando en un estado de derecho, máxime cuando se ha manifestado previamente que se quiere ir por esas dos ramas. Añade que lo que para algunos/as es contradictorio para ellos/as es complementario y compatible. El Sr. Alcalde explica que si tuvieran conocimiento de la sentencia de un tribunal antes de entrar en el juzgado no estarían donde están hoy en día, y por último, finaliza su intervención diciendo que la labor realizada en muchos ámbitos no ha sido tan mala.

Enparan jaunak hartu du berriz ere hitza, bere ustez, errekurtsoa jartzea beste prozedura bati ekiteari kontrajartzen zaiola esanez. Izan ere, bere iritziz, errekurtsoa aurkezten denean, indar guztiekin horretan sinisten delako da eta ondoren, 2017an forma akatsez mintzatu zirela adierazi du, garai

Toma de nuevo la palabra el Sr. Enparan, y afirma que a su parecer la interposición de un recurso se contrapone a iniciar un nuevo procedimiento Y es que, a su juicio, cuando se presenta el recurso es porque se cree en ello con todas las fuerzas y, a continuación, señala que en 2017 hablaron de

hartan gauza bakarra eskatu zutela gogoraraziz: denbora. Denbora forma akats horiei buruz Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoari kontsulta egin ahal izateko. Hirigintza plana Udalak duen tresna garrantzitsuenetakoa dela esan du Enparan jaunak, Hondarribiko gizarte osoa horren arabera antolatzen denez gero. 2017an Gobernu Taldeak alde bakarrekotasunez jokatu zuela esan du eta errekutsoa aurkeztuta ere alde bakarrekotasunez jokatzen ari dela oraingoan ere. Arduraz jokatzea helegiterik ez aurkeztea dela esanez amaitu du eta esfortzu guztiak plan berri batean jartzea.

errores de forma, recordando que en aquella época se pidió una sola cosa: tiempo. Tiempo, para poder consultar a la Comisión Jurídica Asesora de Euskadi. El Sr. Enparan manifiesta que el plan de urbanismo es una de las herramientas más importantes de la que dispone el Ayuntamiento, ya que toda la sociedad de Hondarribia se organiza en función de ello. Afirma que en 2017 el Equipo de Gobierno actuó con unilateralidad y que interponiendo el recurso también actuará con unilateralidad. Concluye diciendo que actuar con responsabilidad implica no presentar recurso alguno y poner todas las fuerzas en un nuevo plan.

2020ko maiatzaren 25eko 164. epaiaren aurka kasazio-errekurtsoa jartzeko proposamena bozkatu da, eta emaitza aldeko bederatzi botokoa eta aurkako seikoa izan da.

Sometida a votación la propuesta de interponer recurso de casación contra la Sentencia núm. 164 de 25 de mayo de 2020, el resultado de la misma es de nueve votos a favor y seis en contra.

Alde bozkatu dute: Txomin Sagarzazu Ancisar, Juan María Altuna Muñoa, María Serrano Olascoaga, Juan Luis Silanes Aguirre, Gotzone Larrarte Campandegui, Gonzalo Carrión Insausti, Edurne Etxeburu Eguia, Arantzazu Rojo Gómez eta Silvia Emazabel Felce jaun-andreek.

Votan a favor: D. Txomin Sagarzazu Ancisar, D. Juan María Altuna Muñoa, Dª María Serrano Olascoaga, D. Juan Luis Silanes Aguirre, Dª Gotzone Larrarte Campandegui, D. Gonzalo Carrión Insausti, Dª Edurne Etxeburu Eguia, Dª Arantzazu Rojo Gómez y Dª Silvia Emazabel Felce.

Aurka bozkatu dute: Igor Enparan Araneta, Estitxu Urtizberea Sorzabal, Aitzol Arroyo Tumas, Jesús Ignacio Alvarez Yeregui, Xabier Isasi Balanzategui eta Xabier Bengoetxea Erriondo jaun-andreek.

Votan en contra: D. Igor Enparan Araneta, Dª Estitxu Urtizberea Sorzabal, D. Aitzol Arroyo Tumas, D. Jesús Ignacio Alvarez Yeregui, D. Xabier Isasi Balanzategui y D. Xabier Bengoetxea Erriondo.

Ondorioz, **Udalbatzak,** gehiengoz, kasazio-errekurtsoa jartzea **ERABAKI DU** Auzitegi Goreneko Administrazioarekiko Auzien Salan eta Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzien Salan, Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiaren 164/2020 epaiaren aurka. Epai hori 1348/2017 administrazioarekiko auzi-errekurtsoan eman zen, Hiri Antolamenduko Plan Orokorra behin betikoz onartzen duen Udalak 2017ko ekainaren 8an hartutako erabakiaren aurka jarria.

En consecuencia, el **Ayuntamiento Pleno,** por mayoría, **ACUERDA** interponer recurso de casación ante la Sala de lo Contencioso Administrativo del Tribunal Supremo y ante la Sala de lo Contencioso – Administrativo del Tribunal Superior de Justicia del país Vasco, contra la sentencia 164/2020 del Tribunal Superior de Justicia del País Vasco, dictada en el Recurso Contencioso Administrativo núm. 1348/2017 interpuesto contra el acuerdo de 8 de junio de 2017 del Ayuntamiento Pleno por el que se aprueba definitivamente el Plan General de Ordenación Urbana de Hondarribia.

**9.-HONDARRIBIKO HIRI ANTOLAMENDURAKO PLAN OROKORRAREN IZAPIDETZE BERRIA ONARTZEKO PROPOSAMENA**

Hondarribiko Udalak, 1996ko abenduaren 24an behin betiko onartutako eta 1997ko irailaren 3ko 185. GAOn argitaratutako Arau Subsidiarioen indarraldi formala amaitu zenez, Plan Orokorra egiteko prozesuari ekin zion, 2008ko uztailaren 24ko osoko bilkuraren erabaki bidez onartutako formulazio-erabakiaren bidez.

Hiri Antolamenduko Plan Orokorra izapidetu ondoren, 2017ko ekainaren 8an egindako udalbatzarrean behin-betiko onartu zen, eta 2017ko abuztuaren 16ko GAOn argitaratu zen, 155. zenbakian. 12 urteko indarraldia aurreikusten da.

Kontuan hartuta Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiak maiatzaren 25ean 1348/2017 prozedura arruntean emandako 164/2020 epaia, aipatutako plana erabat deuseztzat jotzen duena, eta Udalak egun horretan bertan kasazio-errekurtsoa jartzea erabaki duen arren.

2017ko irailaren 6tik indarrean dagoen Plan Orokorraren gauzatze-maila kontuan hartuta, plan horretako aurreikuspen batzuk gauzatu baitira edo gauzatze-fasean baitaude, besteak beste, honako hauek:

-Muliateko bizitegi-garapenak. Eremu horretan, babes publikoko etxebizitzak eta aurreikusitako etxebizitza libreak egin dira, udal-jabetzako a.3.2/11 lurzatia izan ezik (a.400.11 arau subsidiarioetan).

- Amute eta Kosta/Santa Engrazia eta Gabarrarin egindako zuzkidura-jarduketak (4.1.1. A.D., 4.1.2. A.D.4.3.4 eta 4.6.1. A.D.), hasita daudenak baina hainbat gauzatze-mailarekin.

- Montañenea UEko jarduketa, izapidetzen.

**9.-PROPUESTA DE APROBACIÓN DE NUEVA TRAMITACIÓN DEL PLAN GENERAL DE ORDENACIÓN URBANA DE HONDARRIBIA**

El Ayuntamiento de Hondarribia, ante la finalización de la vigencia formal de las Normas Subsidiarias aprobadas definitivamente el día 24 de diciembre de 1996, y publicadas en el B.O.G. núm 185 de 3 de septiembre de 1997, procedió a la iniciación del proceso de elaboración del Plan General, mediante acuerdo de formulación del mismo aprobado por acuerdo plenario de fecha 24 de julio de 2008.

El Plan General de Ordenación Urbana, previa su tramitación, fue aprobado definitivamente por el Ayuntamiento Pleno en sesión celebrada el día 8 de junio de 2017, y publicado en el B.O.G. núm. 155 de 16 de agosto de 2017. El período de vigencia estimado es de 12 años.

Teniendo en cuenta la Sentencia núm. 164/2020 de 25 de mayo dictada por el Tribunal Superior de Justicia del País Vasco, en el Procedimiento Ordinario 1348/2017, que declara nulo de pleno derecho el Plan citado y sin perjuicio del recurso de casación que el Ayuntamiento ha acordado interponer con esta misma fecha.

Teniendo en cuenta el grado de ejecución del Plan General vigente desde el 6 de septiembre de 2017, pues se han ejecutado o se encuentran en fase de ejecución algunas de las previsiones del mismo, entre las que destacan las siguientes:

-Desarrollos residenciales de Muliate. En este ámbito se han ejecutado viviendas destinadas a VPP y libres previstas, con excepción de la parcela a.3.2/11 (a.400.11 en las NN.SS.) de propiedad municipal

-Actuaciones de dotación en Amute y Kosta / Santa Engrazia y Gabarrari (A.D. 4.1.1, a A.D. 4.1.2, A.D.4.3.4 y A.D. 4.6.1), que se encuentran iniciadas pero con diversos grados de ejecución.

-Actuación en la U.E. 5.9 Montañenea, en tramitación.

-Jarduketa Madalenaren kuboko 5.13.1 egikaritze-unitatean, izapidetzen

Kontuan hartuta, halaber, Plan Orokorretik antolamendu xehatuko hainbat tresna eratortzen direla, eta horietako batzuk izapidetzen ari direla:

- Zaldunborda Gaina Zaldunborda Plan Partziala. Hasierako onespena baldintzatua izan zen, eta, ondoren, indarrik gabe geratu zen, 2214/2019 Alkatetza Dekretuaren bidez. Gaur egun, dekretu horren aurka jarritako berraztertzeko errekurtsoa ebazteke dago.

- Basako Plan Partziala, izapidetzen

-Mendeluko Plan Berezia – Eskapatxulo. Horren Aldez Aurreko Azterlanen eta Herritarren Partaidetzaren fasea egin da, eta Plan Bereziaren dokumentua idazteko oinarria izango da.

- Alde Zaharra 5.1.13 eremuko Plan Berezia, Aurrerapen eta herritarren parte-hartze fasean dagoena. Plan hori Plan Orokorretik izapidetzeaz gain, Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitzako sailburuak Hondarribiko Alde Zaharreko Birgaitze Integratuko Eremu gisa espedientea abiarazteari buruz emandako aginduaren bidez ere izapidetzen da. 2014ko azaroan hasi zen prozesu hori, eta indarrean daude Arau Subsidiarioak. Planak zehaztutako antolamenduak eragiten dio prozesu horri, eta egokitu egin behar da, haren antolamendu-zehaztapenetara.

Kontuan hartu da 164 zenbakiko epaiak Plan Orokorraren deuseztasuna aitortzen duela, izapidetzean konpongarritzat jotzen ez diren akatsengatik, baina ontzat ematen dituela errekurritutako antolamendu-zehaztapenak, eta, printzipioz, ez dela arazo esanguratsurik hauteman indarrean dagoen planean proposatutako hiri-ereduarekin eta antolamenduarekin.

Kontuan hartuta, halaber, gaur egun Udalak bi tresna berri dituela: 2019ko urriaren 30eko osoko bilkuran Udalak onartutako Hiri Mugikortasun Iraunkorreko Plana eta 2017an eguneratutako Irisgarritasun Plana. Horietatik Plan Orokorra

-Actuación en la U.E.5.13.1 Cubo de la Magdalena, en tramitación

Teniendo en cuenta, asimismo, que del Plan General derivan diversos instrumentos de ordenación pormenorizada, algunos de los cuales se hallan en tramitación:

- Plan Parcial Zaldunborda Gaina, que fue objeto de aprobación inicial condicionada que después quedó sin efecto por Decreto de Alcaldía núm. 2214/2019, estando actualmente pendiente de resolución el Recurso de Reposición interpuesto contra dicho Decreto.

-Plan Parcial de Basako, en tramitación

-Plan Especial de Mendelu – Eskapatxulo, del que se ha realizado la fase de Estudios Previos y participación ciudadana que servirá como base para la redacción del documento de Plan Especial.

-Plan Especial del ámbito 5.1.13 Alde Zaharra, en fase de Avance y participación ciudadana, cuya tramitación no solo deriva del Plan General, sino que se realiza por mandato de la Orden del Consejero de Medio Ambiente, Planificación Territorial y vivienda, sobre incoación de expediente de Alde Zaharra de Hondarribia, como Área de Rehabilitación Integrada, proceso que comenzó en noviembre de 2014, estando vigentes las Normas Subsidiarias, y que es afectado por la ordenación definida por el Plan, debiendo adaptarse a sus determinaciones de ordenación estructural.

Teniendo en cuenta que la sentencia núm. 164 declara la nulidad del Plan General por defectos en la tramitación que no se consideran subsanables, pero da por buenas las determinaciones de ordenación recurridas y que en principio no se han detectado problemas significativos con el modelo de ciudad y la ordenación propuestos en el Plan vigente.

Teniendo en cuenta asimismo que en la actualidad el Ayuntamiento cuenta con dos nuevos instrumentos, Plan de Movilidad Urbana Sostenible aprobado por el Ayuntamiento en sesión plenaria celebrada el 30 de octubre de 2019

aberasten duten ekarpenak lor daitezke.

y Plan de Accesibilidad actualizado en 2017, de los cuales se pueden obtener aportaciones que enriquezcan el Plan General.

Era berean, kontuan hartu da Hiri Antolamenduko Plan Orokorra onartu zenetik aldaketak egin direla lurralde-antolamenduaren esparruan eta aplikatzekoa den legeria sektorialean, eta Plan Orokorra horietara egokitu behar dela.

Teniendo en cuenta asimismo que desde la aprobación del Plan General de Ordenación Urbana se han producido modificaciones en el marco de la ordenación territorial y en la legislación sectorial aplicable y a las que el Plan General debe adecuarse.

Uztailaren 13ko 178/2020 zenbakiko txostena ikusita, uste da indarrean dagoen Plan Orokorra berriro izapidetu behar dela, segurtasun juridikoa egikaritzeko fasean dauden jarduketak hornitzeko eta hirigintza-garapena ez geldiarazteko, eta izapidetze berriak dagozkion aldaketak egin beharko dituela egungo lege-esparrura egokitzeko, egoki iritzitako beste aldaketa batzuk ere gorabehera.

Visto el informe núm. 178/2020 de 13 de julio estimando que procede volver a tramitar el vigente Plan General para dotar a las actuaciones en fase de ejecución de seguridad jurídica y para no paralizar el desarrollo urbanístico, y que la nueva tramitación deberá introducir las modificaciones pertinentes para acomodarse al marco legal actual, sin perjuicio de otras modificaciones que también pudieran estimarse oportunas.

Ikusi da Idazkari andrearen uztailaren 16ko 97/2020 txostena, Hiri Antolamenduko Plan Orokor berria egiteko prozesua hastearen aldeko txostena ematen duena, eta, horretarako, dagokion aurrerapena egitea, ezarri beharreko antolamenduaren irizpide, helburu, alternatiba eta proposamen orokorrak definituko dituena eta Plan Orokorra idazteko orientabide izango dena. Aurrerapen horrek, gainera, planen ingurumen-ebaluazio estrategikoaren araudian aurreikusitako Hasierako Dokumentu Estrategikoa izan beharko du, eta honako hau gehitu beharko du: "Dokumentua egiteko, Eusko Jaurlaritzako eta Gipuzkoako Foru Aldundiko babes zibileko, ingurumeneko, kultura-ondareko eta natura-inguruneko eskumenak dituzten organoei informazioa eskatuko zaie dauden arriskuei eta ingurumen-baldintzez, kultura-ondarearen babesari eta Antolamenduak errespetatu behar dituen natura-inguruneaz; bi eguneko hilabeteko epean emango da, justifikazio tekniko eta juridikoarekin batera.

Visto el informe núm. 97/2020 de 16 de julio, de la Sra. Secretaria informando favorablemente el inicio del proceso de elaboración de nuevo Plan General de Ordenación Urbana, y proceder a su formulación, y, a tales efectos, proceder a la elaboración del oportuno Avance que defina los criterios, objetivos, alternativas y propuestas generales de la ordenación a establecer, y que sirva de orientación para la redacción del Plan General. Este Avance deberá contener además el oportuno Documento Inicial Estratégico previsto en la normativa de evaluación ambiental estratégica de los planes y añadiendo que " ….A efectos de la elaboración del documento, se solicitará de los órganos del Gobierno Vasco y de la Diputación Foral de Gipuzkoa con competencias sobre protección civil, el medio ambiente, el patrimonio cultural y el medio natural la información sobre riesgos existentes y los condicionantes medioambientales, de protección del patrimonio cultural y del medio natural que deban ser respetados por su ordenación, la cual se suministrará acompañada de su justificación técnica y jurídica, en el plazo de dos meses"

Ikusiz Udalerria Batzordeak 2020ko uztailaren 16an egindako bilkuran Plan berria egitearen alde emandako irizpena, EAJ-PNV, Abotsanitz eta PSE-EE-PSOEko zinegotzien aldeko botoekin eta EH-Bilduren abstentzioarekin.

Visto el dictamen emitido por la Comisión Udalerria en sesión celebrada el día 16 de julio de 2020, en sentido favorable a la formulación del nuevo Plan, adoptado con los votos a favor de los concejales asistentes pertenecientes a EAJ-PNV,

Abotsanitz y PSE-EE-PSOE y la abstención de EH-BILDU.

Ikusiz Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legearen 84., 90.1 eta 108. artikuluak, eta Lurralde-Antolamenduko Planak eta Hirigintza-Antolamenduko tresnak onartzeko prozedurak arautzen dituen martxoaren 24ko 46/2020 Dekretuaren 26. artikuluaren 1., 2. eta 3. Atalak.

Vistos los artículos 84, 90.1 y 108 de la Ley 2/2006, de 30 de junio, de Suelo y Urbanismo, y el artículo 26 apartados 1, 2 y 3 del Decreto 46/2020, de 24 de marzo, de regulación de los procedimientos de aprobación de los planes de ordenación del territorio y de los instrumentos de ordenación urbanística.

Alkate jaunak hartu du txanda honako puntua aurrekoari lotuta dagoela adieraziz eta erabakia hartzerako garaian boterearen bakardadetik ez direla ari. Jaso diren txostenetan aurreko planaren garapen maila ageri dela erantsi du eta legeak eguneratu ahala egokitzeko premia ere bai. Urtetan egindako hainbeste lan zakarrontzira ezin bota daitekeela gehitu du; eguneratu, egokitu eta tramitazioak eskatzen dituen pauso guztiak bete behar direla, hau da, formulazioa eta herritarren partaidetza martxan jarri. Bestalde, gizartea aldatzen ari dela gogorarazi du, nahiz eta badiren finkoak diren gaiak eta horregatik, aurreko planean landutako gaiez hitz egin beharko dela erantsi du: lurralde okupazioaz eta hirigintza kohesioaz, etxebizitzaz, jarduera ekonomikoez, ekipamendu komunitarioez, mugikortasunaz, ingurumenaren iraunkotarsunaz… Ikuspegi bateratua edo desberdina izan dezaketela adierazi du, baina aurrera egin behar dutela. Alkate jaunak bezala gaian eskarmentu pixkat dutenek, prozesuak Udalbatzaren parte hartzea beharrezkoa duela badakitela gehitu du, beste administrazioena, herritarrena banaka edo elkarte bidez, erakundeena,…Epaia ekainean iritsi zela gogorarazi du, uztailean plan berriari ekiteko proposamena luzatu dela eta aurreko bileretan jaso duenagatik, Alkate jaunak gainerako taldeak ere bat etorriko direla pentsatzen duela adierazi du.

Toma la palabra el Sr. Alcalde y afirma que este punto está relacionado con el anterior y que a la hora de tomar la decisión no lo hacen desde la soledad del poder. Añade que en los informes recogidos se refleja el nivel de desarrollo del anterior plan y la necesidad de adaptar las leyes a medida que se vayan actualizando. Añade que no se puede tirar a la basura el trabajo de tantos años; que hay que cumplir todos los pasos exigidos para la actualización, adecuación y tramitación, es decir poner en marcha la formulación y la participación ciudadana. Por otro lado, recuerda que la sociedad está cambiando, a pesar de que hay temas que son fijos y por ello, añade que habrá que hablar de los temas tratados en el anterior plan: ocupación territorial y la cohesión urbanística, vivienda, las actividades económicas, los equipamientos comunitarios, la movilidad, la sostenibilidad medioambiental… Indica que pueden tener una visión común o diferente, pero que tienen que avanzar. Añade que los que al igual que el Sr. Alcalde tienen un poco de experiencia en el tema, saben que el proceso requiere de la participación del Pleno, de otras administraciones, de la ciudadanía individual o asociativa, de las instituciones, … recuerda que la sentencia llegó en junio, que en julio se ha propuesto abordar el nuevo plan y que por lo que ha recogido en las reuniones anteriores, el Sr. Alcalde piensa que el resto de los grupos también van a estar de acuerdo.

Enparan jaunak hartu du txanda ondoren, helegitea jartzea eta plan berria proposatzea elkarren kontra daudela azalduz. Plan Orokor berri baten izapidetze prozedura martxan jartzearen alde daudela esan du eta bere taldearen izenean, herri kohesioaren aldeko planaren apustua egingo dutela adierazi du. Mendelu Hondarribia dela gogorarazi du, Amutekoak ere zenbaitetan ahaztuta sentitzen direla…Herri jasangarria nahi dutela erantsi du bai natura

A continuación toma la palabra el Sr. Enparan, y afirma que la interposición del recurso es contraria a la propuesta del nuevo plan. Indica que están a favor de poner en marcha el procedimiento de tramitación de un nuevo Plan General y que en nombre de su grupo, van a apostar por un plan de cohesión popular. Recuerda que Mendelu es Hondarribia, que los/as vecinos/as de Amute a veces se sienten olvidados/as … añade que quieren

ikuspegitik, baita ikuspegi ekonomikotik ere, eta bide horretatik lan egingo dutela aurreratu du, nahiz eta ekarpenak egingo dituzten eta ez duten ahazten 2017ko HAPOa bertan behera uztearekin 1996ko Arau Subsidiarioak daudela indarrean eta Arau Subsidiarioetatik babes ofizialeko etxebizitzak garatzeko daudela. Babes ofizialeko etxebizitzak lehenetsiko dituztela aurreratu du, ekintza pribatuko etxebizitzen aurretik. Orain arteko dinamikan etxebizitza pribatuak publikoari aurrea hartu diola esan du eta beraiek indarra publikoari emango diotela aurreratu du. Bukatzeko, Plan Orokorra indargabetzeak plana hasieratik egin behar izatea dakarrela gogorarazi du eta tramitazioa beste 8 urte ez luzatzea espero duela esan du Enparan jaunak.

Ondoren, Álvarez jaunak hartu du hitza, eta esan du, Gobernu Taldearen ikuspegitik, jasotako epaiaren aurrean eta sor dezakeen segurtasun juridiko ezaren aurrean, logikoa iruditzen zaiola beste prozedura bat planteatzea. Gehitu du udal-arkitektoak egindako txostenak bete beharreko zenbait araudi ezartzen dituela, eta Álvarez jaunak aurreratu du urrian jakingo dela HAPO izapidetzeko onartzen den ala ez. Aurrekoa esanda, Gobernu Taldeak hurrengo bi urteetan Zaldunbordarekin zer egingo duen galdetu du.

Alkate jaunak erantzun du orain dagokiona Planaren izapidetzea dela.

Álvarez jaunak berriz galdetu du ea zer gertatuko den Zaldunbordarekin, ea lizentziak emango diren, Eusko Jaurlaritzaren Legea aplikatuko den…

Alkate jaunak erantzun dio Damarrirekin, Basakoarekin eta abarrekin ea zer gertatuko den galdetuko diola gero.

Álvarez jaunak bere interbentzioarekin jarraitu du esanez errekurtsoak bi urte irauten badu eta Udalak aldi berean Planarekin jarraitzen badu, badagoela Zaldunbordarekiko Eusko Jaurlaritzaren legea aplikatzeko borondatea.

Alkate jaunak galdetu dio ea Planaren izapidetze berriarekin ados dagoen.

un pueblo sostenible tanto desde el punto de vista natural como económico, y adelanta que van a trabajar por este camino, aunque van a hacer aportaciones y no olvidan que con la anulación del PGOU de 2017 están vigentes las Normas Subsidiarias de 1996 y que las Normas Subsidiarias están en vigor para el desarrollo de viviendas de protección oficial. Adelanta que van a priorizar las viviendas de protección oficial frente a las de acción privada. Dice que la vivienda privada ha cogido fuerza frente a la pública y que ellos van a dar fuerza a la pública. Por último, el Sr. Enparan recuerda que la derogación del Plan General obliga a hacerlo desde el principio y espera que la tramitación no se prolongue más de 8 años.

A continuación toma la palabra el Sr Alvarez y dice que, desde el punto de vista del Equipo de Gobierno, ante la sentencia recibida y ante la inseguridad jurídica que pueda generar, le parece lógico que se plantee un nuevo procedimiento. Añade que el informe emitido por la Sra Arquitecta Municipal establece ciertas normativas que hay que cumplir y el Sr Alvarez adelanta que en octubre se sabrá si el PGOU es admitido a trámite o no. Dicho lo anterior, pregunta qué es lo que va a hacer el Equipo de Gobierno los siguientes dos años con Zaldunborda.

El Sr Alcalde responde que lo que ahora corresponde es la tramitación del Plan.

El Sr Alvarez insiste y pregunta qué va a pasar mientras tanto con Zaldunborda si se van a conceder licencias, si se va a aplicar la Ley del Gobierno Vasco…

El Sr Alcalde le contesta que después también le preguntará qué es lo que va a ocurrir con Damarri, Basako, etc.

El Sr Alvarez continúa con su intervención y dice que, si el recurso va a suponer dos años y el Ayuntamiento sigue paralelamente con el Plan, hay voluntad de aplicar la ley del Gobierno Vasco sobre Zaldunborda.

El Sr Alcalde le pregunta si está de acuerdo con la nueva tramitación del Plan.

Álvarez jaunak baietz erantzun du, baina aurreratu egin nahi dela.

El Sr Alvarez responde afirmativamente, pero añade que se quiere adelantar.

Alkateak azaldu du eztabaidatzen ari direna HAPO dela, ez HAPOko jarduera ekonomikoak.

El Alcalde explica que lo que están tratando es el PGOU, no las actividades económicas del PGOU.

Álvarez jaunak esan du izapidetzeak irauten duen urte eta erdian edo bi urteetan, Zaldunbordan ez dela ezer egingo interpretatzen dela.

El Sr Alvarez dice que, durante el año y medio o dos años que dure la situación, interpreta que no se va a hacer nada en Zaldunborda.

Nahi duena interpretatzeko erantzun dio Alkate jaunak. Erantsi du lege berri bat dagoela, eta argi dagoenez izapidetzeari eragingo diola.

El Sr Alcalde le responde que interprete lo que le parezca. Añade que existe una nueva ley y que por tanto afectará en la tramitación.

Álvarez jaunak bere botoa aldekoa izango dela aurreratu du.

El Sr Alvarez adelanta que su voto va a ser a favor

Isasi jaunak hartu du hitza jarraian eta Udalerria Batzordean epaia aztertu zutenean, puntu batean genero ikuspegia aurreko planean ez zela kontuan adierazi zutela gogorarazi du. Berdintasun legea kontuan hartuz, aipamen esplizitua egitea nahi zutela esan du eta horregatik, abstentziora jo zutela. Orain, ordea, aldeko botoa emango dutela aurreratu du Alvarez jaunak esandakoaren izpirituari jarraituz.

Seguidamente toma la palabra el Sr. Isasi y recuerda que cuando analizaron la sentencia en la Comisión Municipio indicaron que en el anterior plan no se había tenido en cuenta en un punto el punto de vista de género. Afirma que teniendo en cuenta la ley de igualdad, querían que se hiciera una mención explícita y que por ello se abstuvieron. Adelanta que ahora sin embargo votarán a favor siguiendo el espíritu de la intervención del Sr. Álvarez.

Hiri Antolamenduko Plan Orokor berria egiteko prozesua hasteko eta dagokion aurrerapena egiteko proposamena bozkatu da, eta emaitza aldeko hamabost botokoa izan da eta aurkakorik gabea.

Sometida a votación la propuesta de iniciar proceso de elaboración de nuevo Plan General de Ordenación Urbana y proceder a la elaboración del oportuno avance, el resultado de la misma es de quince votos a favor y ninguno en contra.

Ondorioz, **Udalbatzak,** bertaratutako zinegotzien aho batez, Udalbatzako legezko kide-kopuruaren gehiengo osoa eratuz, honako hau **ERABAKI DU:**

En consecuencia, el **Ayuntamiento Pleno,** por unanimidad de los concejales asistentes, constitutiva a su vez de la mayoría absoluta del número legal de miembros de la Corporación, **ACUERDA:**

**LEHENENGOA.-** Plan Orokorraren formulazioa onartzea, eta, horretarako, ezarri beharreko antolamenduaren irizpide, helburu, alternatiba eta proposamen orokorrak zehaztuko dituen eta Plan Orokorra idazteko orientabide izango den Aurrerapena egitea, bai eta planen ingurumen-ebaluazio estrategikoaren araudian aurreikusitako Hasierako Dokumentu Estrategikoa egitea ere.

**PRIMERO.-** Aprobar la formulación de Plan General, y, a tales efectos, proceder a la elaboración del oportuno Avance que defina los criterios, objetivos, alternativas y propuestas generales de la ordenación a establecer, y que sirva de orientación para la redacción del Plan General, así como a la elaboración del Documento Inicial Estratégico previsto en la normativa de evaluación ambiental estratégica de los planes.

**BIGARRENA.-** Horretarako, babes zibilean, ingurumenean, kultura-ondarean eta natura-ingurunean eskumenak dituzten Eusko Jaurlaritzako eta Gipuzkoako Foru Aldundiko organoei eskatzea dauden arriskuei buruzko informazioa, bai eta antolamenduak errespetatu behar dituen ingurumen-baldintzatzaileez, kultura-ondarea babesteari eta natura-inguruneari buruzkoaz ere. Informazio hori, justifikazio tekniko eta juridikoarekin batera, gehienez ere bi hilabeteko epean emango da.

**SEGUNDO.-** A tal efecto, solicitar a los órganos del Gobierno Vasco y de la Diputación Foral de Gipuzkoa con competencias sobre protección civil, el medio ambiente, el patrimonio cultural y el medio natural, de la información sobre riesgos existentes y los condicionantes medioambientales, de protección del patrimonio cultural y del medio natural que deban ser respetados por su ordenación, la cual se suministrará, acompañada de su justificación técnica y jurídica, en un plazo no superior a dos meses.

**HIRUGARRENA.-** Udal Plangintzako Aholku Batzordeari informazioa emango zaio Hiri Antolamenduko Plan Orokorra egiteko eta izapidetzeko fase bakoitzean, Plangintzako Aholku Batzordearen Araudiaren 4. eta 5. artikuluetan xedatutakoaren ondorioetarako.

**TERCERO.-** El Consejo Asesor de Planeamiento Municipal será informado en cada una de las fases de elaboración y tramitación del Plan General de Ordenación Urbana, a efectos de lo dispuesto en los artículos 4 y 5 del Reglamento del Consejo Asesor de Planeamiento.

**LAUGARRENA.-** Plan Orokorra formulatzeko erabaki honekin batera, herritarrek parte hartzeko programa dago, ekainaren 30eko 2/2006 Legearen 84.4 artikuluak eta lurralde-antolamenduko planak eta hirigintza-antolamenduko tresnak onartzeko prozedurak arautzen dituen martxoaren 24ko 46/2020 Dekretuaren 3. artikuluak eskatzen dutenarekin bat etorriz, eta horretarako helburuak, estrategiak eta mekanismoak ezartzen dira. Herritarren eta elkarteen parte-hartzea Programa hori aztertu eta onartzea erabaki hau hartu den bilkurako gai-zerrendako puntu espezifikoaren xedea da.

**CUARTO.-** El presente acuerdo de formulación de Plan General está acompañado de programa de participación ciudadana, de acuerdo con lo exigido por el artículo 84.4 de la Ley 2/2006 de 30 de junio, así como por el artículo 3 del Decreto 46/2020 de 24 de marzo, de Regulación de los Procedimientos de aprobación de los planes de ordenación del territorio y de los instrumentos de ordenación urbanística, estableciendo los objetivos, estrategias y mecanismos para posibilitar la participación de la ciudadanía y de las entidades asociativas . El examen y aprobación del citado programa es objeto del correspondiente punto especifico del orden del día de la sesión en que se adopta este acuerdo de formulación.

**10.-HERRITARREN PARTE HARTZE PROGRAMA ONARTZEKO PROPOSAMENA**

**10.-PROPUESTA DE APROBACIÓN DE PROGRAMA DE PARTICIPACIÓN CIUDADANA.**

Hiri Antolamenduko Plan Orokor berria egiteko herritarren partaidetzarako programari buruzko espedientea aztertu ondoren.

Examinado el expediente relativo al programa de participación ciudadana para la elaboración del nuevo Plan General de Ordenación Urbana.

2/2006 Legearen 108. artikuluan xedatutakoaren arabera, Plan Orokorraren formulazioarekin batera herritarrek parte hartzeko programa bat aurkeztu behar da. Programa horretan, udalerriaren ezaugarrien arabera, behar adina helburu, estrategia eta mekanismo ezarriko dira herritarrei eta elkarteei plana egiteko prozesuan parte hartzeko aukera emateko.

Considerando que según lo dispuesto en el artículo en el artículo 108 de la Ley 2/2006, la formulación del Plan General debe ir acompañado de un programa de participación ciudadana, en el que según las características del municipio, se establecerán los objetivos, estrategias y mecanismos suficientes para posibilitar a los ciudadanos y ciudadanas y entidades asociativas el

derecho a participar en el proceso de elaboración de su elaboración.

Ekainaren 30eko 2/2006 Legearen 108. artikuluak berak herritarren partaidetzarako programaren barruan erabili beharreko mekanismoen zerrenda ez-mugatzailea egiten du.

Considerando que el propio artículo 108 de la Ley 2/2006 de 30 de junio, hace una enumeración no limitativa de los mecanismos a utilizar dentro del programa de participación ciudadana

Kontuan hartuta lurralde-antolamenduko planak eta hirigintza-antolamenduko tresnak onartzeko prozedurak arautzen dituen martxoaren 24ko 46/2020 Dekretuaren 3. artikuluak, horrez gain, partaidetza-mekanismoak zerrendatu behar direla, berriz ere ez mugatzeko moduan, bai eta programa hori lurralde historikoko aldizkari ofizialean argitaratzea eta informazioaren teknologia berrien bidez zabaltzea ere.

Considerando que el artículo 3 del Decreto 46/2020 de 24 de marzo de Regulación de los Procedimientos de aprobación de los planes de ordenación del territorio y de los instrumentos de ordenación urbanística, exige además de enumerar, de nuevo no con carácter limitativo, los mecanismos participativos, la publicación del mencionado programa en el Boletín Oficial del Territorio Histórico y su divulgación a través de las nuevas tecnologías de la información

2020ko uztailaren 13ko 180/2020 txostena ikusi ondoren, herritarrek parte hartzeko programaren onartzearen aldekoa dena.

Visto el informe núm. 180/2020 de fecha 13 de julio de 2020 informando favorablemente el programa de participación ciudadana a efectos de su aprobación

2020ko uztailaren 16ko Udalerria Batzordearen diktamena ikusi ondoren.

Visto el dictamen de la Comisión Municipio de 16 de julio de 2020.

Alkate jaunak hitza hartu du, gaia Udalerria Batzordean azaldu zela gogoraraziz eta eman beharreko pausoak eman bezain pronto, asmoa egin beharreko kontratazioa martxan jartzeko. Pausoak martxa egokian eman nahiko lituzketela esan du eta adieraziko dela.

Toma la palabra el Sr. Alcalde, recordando que el tema se expuso en la Comisión Municipio y que en cuanto se den los primeros pasos la intención es poner en marcha la contratación. Afirma que quisiera dar los pasos a una marcha adecuada y que se comunicará.

Enparan jaunak hartu du hitza ondoren, hirigintza plan batean herritarren parte hartze programa ezinbestekoa dela esanez. Aurreko HAPOan sortu ziren gatazkak eta eztabaidak oraindik azalean dituztelako, herritarrek eta eragileek planean parte hartze handiagoa izatea nahiko luketela esan du, baita etorkizunean herrri babesa izateko herri kontsulta planteatzea ere. Hartara gero helegiterik ez izateko eta herriaren errefrendoa izateko plana onarpenera ekarri aurretik. Programaren aurka ez direla jarriko adierazi du, legearen gutxienekoa betetzen duelako.

Seguidamente toma la palabra el Sr. Enparan e indica que la participación ciudadana es imprescindible en un plan de urbanismo. Afirma que quisieran que la ciudadanía y los/as agentes tuvieran una mayor participación, ya que todavía tienen presentes los conflictos y discusiones originados en el anterior PGOU, y que del mismo modo querrían que se planteara una consulta popular para lograr un mayor apoyo popular, para no tener que presentar luego un recurso, y tener el apoyo de la ciudad antes de traer el plan a aprobación. Manifiesta que no se opondrán al programa, ya que cumple los mínimos legales.

Proposamena bozkatu ondoren, emaitza aldeko hamabi botokoa izan da, aurkakorik gabekoa eta hiru abstentziokoa.

Sometida a votación la propuesta, el resultado de la misma es de doce votos a favor, ninguno en contra y tres abstenciones.

Alde bozkatu dute: Txomin Sagarzazu Ancisar, Juan María Altuna Muñoa, María Serrano Olascoaga, Juan Luis Silanes Aguirre, Gotzone Larrarte Campandegui, Gonzalo Carrión Insausti, Edurne Etxeburu Eguia, Arantzazu Rojo Gómez, Silvia Emazabel Felce, Jesús Ignacio Alvarez Yeregui, Xabier Isasi Balanzategui eta Xabier Bengoetxea Erriondo jaun-andreek.

Votan a favor: D. Txomin Sagarzazu Ancisar, D. Juan María Altuna Muñoa, Dª María Serrano Olascoaga, D. Juan Luis Silanes Aguirre, Dª Gotzone Larrarte Campandegui, D. Gonzalo Carrión Insausti, Dª Edurne Etxeburu Eguia, Dª Arantzazu Rojo Gómez, Dª Silvia Emazabel Felce, D. Jesús Ignacio Alvarez Yeregui, D. Xabier Isasi Balanzategui y D. Xabier Bengoetxea Erriondo.

Abstenitu egin dira: Igor Enparan Araneta, Estitxu Urtizberea Sorzabal eta Aitzol Arroyo Tumas jaun-andreak.

Se han abstenido: D. Igor Enparan Araneta, Dª Estitxu Urtizberea Sorzabal y D. Aitzol Arroyo Tumas.

Horren ondorioz, **Udalbatzak,** gehiengoz, hauxe **ERABAKI DU:** herritarrek parte hartzeko programa onartzea Plan Orokorra formulatzeko erabakiarekin batera eta Plan Orokorra izapidetzeko prozesuan gauzatuko dena.

En consecuencia, el **Ayuntamiento Pleno**, por mayoría **ACUERDA**: aprobar el programa de participación ciudadana elaborado para acompañar al acuerdo de formulación del Plan General, y que se llevará a cabo en el proceso de tramitación del Plan General.

**11.-MONTAÑENEAKO XEHETASUN AZTERKETAREN BEHIN BETIKO ONESPEN PROPOSAMENA**

**11.- PROPUESTA DE APROBACIÓN DEFINITIVA DEL ESTUDIO DE DETALLE MONTAÑENEA.**

Montañeneako xehetasun azterketaren onarpen proposamenari dagokion espedientea azetrtu ondoren.

Examinado el expediente relativo a la propuesta de aprobación del estudio de detalle Montañenea.

Udal Arkitekto andrearen 176/2020 zkiko txostena ikusi ondoren.

Visto el informe de la Sra Arquitecta Municipal nº 176/2020.

2020ko uztailaren 16ko Udalerria Batzordearen diktamena ikusi ondoren, Udalbatzari gehiengoz proposatuz xehetasun azterketa behin betikoz onartzea EAJren aldeko botoekin, EH Bilduren kontrako botoekin, PSE-EE-PSOEren abstentzioarekin eta Abotsanitz taldeak bozketan parte hartzeari uko eginez.

Visto el dictamen de la Comisión Municipio de 16 de julio de 2020, proponiendo por mayoría elevar al Pleno la aprobación definitiva del estudio de detalle con los votos a favor del grupo PNV, los votos en contra de EH Bildu, la abstención de PSE-EE-PSOE y habiendo declinado intervenir en la votación el grupo Abotsanitz.

Serrano andreak hartu du hitza gaiaren laburpena egin du.

Toma la palabra la Sra Serrano y realiza un resumen del asunto.

Ondoren, Arroyo jaunak hitz egin du honako testua irakurriz:

A continuación toma la palabra el Sr. Arroyo y da lectura al siguiente texto:

*"Betiko jokamoldeak eta betiko irakurketa bikoitzak. Beste behin ere eta gehiengo absolutua baliatuz onartu nahi du Udal Gobernuak Montañeneako proiektua. Astelehenean bertan Txomin Sagarzazuk dekretu bidez onartu zuen hirigintzako jarduketa programari behin betiko onespena ematea eta gaurkoan proiektuari azken bultzada emateko proposamenarekin datozkigu. Plan Orokorraren aferan ez da lehenengo aldia Abotsanitzetik Udal Gobernuari abisatu diogula. Honek ardurak ekarriko dituela etorkizunari begira, baina bost axola zaie. Berriz esango dugu eta Mariari akaso gustatuko zaio ala akaso ez, HAPOa ilegala da. Errekurtsoa jartzea ingenieritza politiko-urbanistikoa besterik ez da. Errekurtsoaren bidea amaitu eta lizentziak korrika eta presaka emateko asmoa adierazi du Udal Gobernuak, eta honen adibide garbia dugu gaur aztergai dugun Montañenea. Horregatik, Abotsanitzeko zinegotziok bozketan ez parte hartzeko hautua egin dugu. Beltzuneak ikusten baititugu proiektu urbanistiko honetan.Lizentzia emateak ezegonkortasuna ekarriko dio Montañeneari eta honek etorkizunean ardura juridiko zein ekonomikoak eskatzea ekarriko dio ia ziur Hondarribiko Udalaren kalte izango direnak. Eta amaitzeko, ondoko hitzekin biribildu nahiko nuke esandakoa: "badugu martxan den hiri proiektua, badugu Hondarribiaren etorkizunari ia aurre hartzeko ikuspegia, eta gainera, kudeaketarekin ederki kontrastatua. Eta honek konfiantza eta erantzukizuna ematen digu etorkizunari aurre egiteko" (Txomin Sagarzazu Ancisar, 2019ko ekainaren 15ean). Bada, Txomin, zera esan nahi dizugu: ikusi dugu zertan geratu den kudeaketarekin ederki kontrastatua zegoen hori, baina garaiz zabiltzate. Zuen esku dago gauzak beste modu batean egitea. Eskerrik asko".*

*"Los comportamientos de siempre y la doble lectura de siempre. Una vez más y por mayoría absoluta el Gobierno Municipal quiere aprobar el proyecto de Montañenea. El mismo lunes, Txomin Sagarzazu aprobó mediante Decreto la aprobación definitiva del Programa de Actuación Urbanística y hoy nos viene con la propuesta de dar un último empujón al proyecto. En el caso del Plan General no es la primera vez que hemos avisado desde Abotsanitz al Gobierno Municipal que esto traerá responsabilidades de cara al futuro, pero les da igual. Insistimos, y a María le puede gustar o no, el PGOU es ilegal. La interposición del recurso no es más que una ingeniería político-urbanística. El Gobierno Municipal ha manifestado su intención de materializar el recurso y de otorgar licencias corriendo y de forma urgente, un buen ejemplo de ello es el proyecto de Montañenea que hoy nos ocupa. Por ello, los concejales de Abotsanitz hemos optado por no participar en la votación. Ya que vislumbramos sombras en este proyecto urbanístico. La concesión de la licencia traerá consigo inestabilidad para Montañenea y casi seguro eso supondrá responsabilidades jurídicas y económicas, que irán en detrimento del Ayuntamiento de Hondarribia. Y para terminar quisiera redondear lo dicho con las siguientes palabras: "Tenemos un proyecto de ciudad en marcha, tenemos perspectiva para adelantarnos al futuro de Hondarribia. Y además, perfectamente contrastada con la gestión. Todo ello nos da confianza y responsabilidad para hacer frente al futuro" (Txomin Sagarzazu Ancisar, 15 de junio del 2019). Pues, Txomin, te queremos decir lo siguiente: ya hemos visto en qué ha quedado lo que estaba perfectamente contrastado con la gestión, pero estáis a tiempo. Está en vuestras manos hacer las cosas de otra manera. Gracias".*

Alkate jaunak hitz egin du ondoren "erantzukizuna", "ardurak", "HAPOa ilegala da"… hori guztia oso ondo dagoela esan du aldarrikapen modura, baina eman diren pausoek errespetua merezi dutela nabarmendu du. Norberak gauza bera lau aldiz errepikatzeak besteak konbentzi ditzakeela suposa dezakeela esan du, baina horrek ez duela suposatu behar beste guztiek berdin ibili behar izatea. "Abisatu dizugu" eta "ardurak" aipatzea, Alkate jaunari beste garai batzuk gogorarazten dizkiola esan du eta Arroyo jaunari zuzenduz, zorionez,

A continuación toma la palabra el Sr. Alcalde y afirma que "la responsabilidad", "el PGOU es ilegal"…que todo eso está muy bien como reivindicación, pero subraya que los pasos dados merecen un respeto. Que puede suponer que el hecho de que uno repita cuatro veces lo mismo pueda convencer a los demás, pero que eso no quiere decir que el resto vaya por el mismo camino. Afirma que el mencionar "te hemos avisado" y "responsabilidades" le hace recordar otros tiempos, y dirigiéndose al Sr. Arroyo, le dice

berak garai horiek ez dituela ezagutu esan dio, nahiz eta Alkate jaunak ere garai haiek gutxi ezagutu dituela erantsi duen.

Arroyo jaunak bere taldeak bere irakurketa egin duela erantsi du eta horretan mantenduko direla adieraziz amaitu du bere interbentzioa.

Proposamena bozkatu ondoren, emaitza aldeko bederatzi botokoa izan da, aurkako bikoa eta abstentzio batekoa. Hiru zinegotzik bozketan parte hartzeari uko egin diote.

Alde bozkatu dute: Txomin Sagarzazu Ancisar, Juan María Altuna Muñoa, María Serrano Olascoaga, Juan Luis Silanes Aguirre, Gotzone Larrarte Campandegui, Gonzalo Carrión Insausti, Edurne Etxeburu Eguia, Arantzazu Rojo Gómez eta Silvia Emazabel Felce jaun-andreek.

Aurka bozkatu dute: Xabier Isasi Balanzategui eta Xabier Bengoetxea Erriondo jaunek.

Abstenitu egin da: Jesús Ignacio Alvarez Yeregui jauna.

Bozketan parte hartzeari uko egin diote: Igor Enparan Araneta, Estitxu Urtizberea Sorzabal eta Aitzol Arroyo Tumas jaun-andreek.

Horren ondorioz, **Udalbatzak,** gehiengoz, hauxe **ERABAKI DU:** Montañeneako xehetasun azterketa behin betikoz onartzea.

**12.-EKINTZAILETZAREN SUSTAPENERAKO ENPRESA LEHIAKORTASUNA HOBETZEKO DIRU-LAGUNTZEN OINARRIAK ALDATZEKO PROPOSAMENA.**

Ekintzailetzaren sustapenerako enpresa lehiakortasuna hobetzeko diru-laguntzen oinarriak aldatzeko proposamenari dagokion espedientea aztertu ondoren.

Turismo eta Merkataritza teknikari andrearen 2020/01 zkiko txostena ikusi ondoren.

2020ko uztailaren 2ko Udalerria Batzordearen diktamena ikusi ondoren, oinarri aldaketa onartzeko

que por fortuna, él no ha conocido esa época, a pesar de que añade que el Sr. Alcalde tampoco la conoció demasiado.

El Sr. Arroyo añade que su grupo hace su lectura y finaliza su intervención diciendo que se mantendrán en ello.

Sometida a votación la propuesta, el resultado de la misma es de nueve votos a favor, dos en contra y una abstención. Tres concejales/as han declinado participar en la votación.

Votan a favor: D. Txomin Sagarzazu Ancisar, D. Juan María Altuna Muñoa, Dª María Serrano Olascoaga, D. Juan Luis Silanes Aguirre, Dª Gotzone Larrarte Campandegui, D. Gonzalo Carrión Insausti, Dª Edurne Etxeburu Eguia, Dª Arantzazu Rojo Gómez y Dª Silvia Emazabel Felce.

Votan en contra: D. Xabier Isasi Balanzategui y D. Xabier Bengoetxea Erriondo.

Se ha abstenido: D. Jesús Ignacio Alvarez Yeregui.

Han declinado participar en la votación: D. Igor Enparan Araneta, Dª Estitxu Urtizberea Sorzabal y D. Aitzol Arroyo Tumas.

En consecuencia, el **Ayuntamiento Pleno**, por mayoría **ACUERDA** aprobar definitivamente el estudio de detalle de Montañenea.

**12.-PROPUESTA DE MODIFICACIÓN DE BASES DE LAS SUBVENCIONES PARA LA MEJORA DE LA COMPETITIVIDAD EMPRESARIAL PARA EL FOMENTO DEL EMPRENDIMIENTO.**

Examinado el expediente relativo a la modificación de bases de las subvenciones para la mejora de la competitividad empresarial para el fomento del emprendimiento.

Visto el informe nº 2020/01 de la Sra Técnica de Turismo y Comercio.

Visto el dictamen de la Comisión Municipio de 2 de julio de 2020, proponiendo al Ayuntamiento Pleno

proposamena eginez Udalbatzari.

2020ko uztailaren 22ko Udal Idazkari andrearen 99/2020 zkiko aldeko txostena ikusi ondoren,
nahiz eta ez den beharrezkoa 12. oinarria aldatzea, zerga betebeharrak dituzten Administrazio Publiko ezberdinekin ordainketak eguneratuta izatea, eta honi dagokionez 1 0115.480.01.433.20 2020 (8993).

la aprobación de la modificación de las bases.

Visto el informe nº 99/2020 de 22 de julio de 2020 de la Sra Secretaria Municipal en sentido favorable,
si bien no se considera necesaria la modificación de la base 12ª, la acreditación de estar al corriente de las obligaciones frente a las diferentes Administraciones Públicas con las que tengan exigencias de carácter tributario, y en cuanto a 1 0115.480.01.433.20 2020 (8993).

Serrano andreak gaiaren laburpena egin eta proposamena azaldu du.

Jarraian, Urtizberea andreak hartu du txanda eta Serrano andreak aipatu bezala, laguntza hauen oinarrietan aldaketak egitea proposatzen dela gogorarazi du eta aldaketak proposatzeko, teknikarien hitzetan aurreko esperientzietan oinarritu direla azaldu du. Hausnarketa horri hanka bat falta zaiola esan du Urtizberea andreak, izan ere, bere iritziz, ondo dago aurreko esperientziak kontuan hartzea, baina dagoen egoeraren analisia egin beharko litzatekeela erantsi du. Adibide gisa, Bidasoa Bizirikeko azken enplegu buletinean jasotako datu larriak aipatu ditu. Aurreko ekaineko datuekin konparatuz, langabezia egoeran dagoen jende kopurua %35 igo dela adierazi du, alegia, 2019an 540 lagun zeudela langabezian Hondarribian eta 2020an 729 lagun, hortaz, 189 lagun gehiago. Enpresek jasandako egoera askoz ere hobea ez dela gehitu du. Dirulaguntza hauentzako partida 20.000 euro igo dela gogorarazi du Urtizberea andreak eta hori albiste ona dela esan du. Lehenengo lerroan aurreko urtean onuradunek 1.500 euro jasoko zituztela eta aurten 5.000 euroko jasoko dituztela esan du, eta hori ekintzaile batentzat laguntza garrantzitsua dela ulertzen dutela, baina euren kezka zera dela, diru partida motz geratzen dela batez ere etorkizunean dagoen panorama ikusiz gero. Enpresek kontratuak egiteko asmorik ez dutela esan du eta langabezian dagoen jendearentzat ekintzailetza lanean hasteko aukera garrantzitsua izan daitekeela. 25.000 euro horiek 5.000 euroko laguntza arte izan badaiteke, onuradun kopurua txikia izango dela ondoriozta daitekeela azaldu du Urtizberea andreak. Gauza

La Sra Serrano realiza un resumen del asunto y explica la propuesta.

A continuación toma la palabra la Sra. Urtizberea y recuerda, tal y como señala la Sra. Serrano, que se proponen modificaciones en las bases de estas ayudas y explica que para proponer cambios según los/as técnicos/as se han basado en experiencias anteriores. La Sra. Urtizberea manifiesta que a dicha reflexión le falta una pata, ya que en su opinión, está bien tomar en cuenta experiencias anteriores, pero añade que se debería hacer un análisis de la situación actual. Como ejemplo, menciona los graves datos recogidos en el último boletín de empleo de Bidasoa Activa. Indica que en comparación con los datos del pasado junio, el número de gente en situación de desempleo ha aumentado un 35%, es decir, que en 2019 había 540 personas desempleadas y en 2020 son 729 personas, por lo tanto 189 personas más. Añade que la situación de las empresas no es mucho mejor. La Sra. Urtizberea recuerda que la partida para estas subvenciones ha aumentado 20.000 euros y afirma que es una buena noticia. Indica que en la primera línea el pasado año los beneficiarios obtuvieron 1.500 euros y que este año obtendrán 5.000 euros, y que entiende que esa es una ayuda importante para un emprendedor, pero que su preocupación es que la subvención se queda corta, sobre todo teniendo en cuenta el panorama futuro. Manifiesta que las empresas no están por la labor de hacer contratos y que el emprendimiento puede ser una opción importante para comenzar a trabajar para la gente desempleada. La Sra. Urtizberea indica que si esos 25.000 euros pueden ser una subvención de hasta 5.000 euros, se puede concluir que serán pocos los

bera lehiakortasunarentzako laguntzekin ere, alegia, laguntza horiek jasoko dituztenak ere gutxi izango direla.

Bestalde, balorazio irizpideen puntuazioarekin ere zalantzak dituztela azaldu du Urtizberea andreak. Atentzioa eman diola lehiakortasunaren laguntzetan 35 puntu ematea, hau da, puntuazio gorena, azken bi urteetan Hondarribiko Udalak antolatutako jardueretan parte hartu duten enpresei. Testuinguru honetan puntuazio gehien jaso beharko lukeen aldagaia ez lukeela izan beharko erantsi du. Agian langileak babestu dituen edo ABEEtik langileak atera dituen enpresa bati eman beharko litzaiokeela laguntza. Urtizberea andreak proposamena egungo egoerari lotu du, beste edozein testuingurutan aldagai hori ontzat jo baitu bere iritziz herria saretzen laguntzen duelako.

Bukatzeko, hainbat sektore laguntza hauetatik at geratzen direla gehitu du, adibidez, ostalaritza. Dirulaguntzen plan estrategikoan beste lerroren bat izango zela pentsatu zutela esan du Urtizberea andreak, baina ez dutela topatu. Horregatik, gai hori ez dutela ondo ulertu esan du. Hala ere, dagoen egoeran eta kontuan izanda laguntza guztiak gutxi izango direla, laguntzen planari aldeko bozka emango diotela aurreratu du.

Proposamena bozkatu eta onartu da aldeko hamabi botorekin, aurkakorik gabe eta hiru abstentziorekin.

Alde bozkatu dute: Txomin Sagarzazu Ancisar, Juan María Altuna Muñoa, María Serrano Olascoaga, Juan Luis Silanes Aguirre, Gotzone Larrarte Campandegui, Gonzalo Carrión Insausti, Edurne Etxeburu Eguia, Arantzazu Rojo Gómez, Silvia Emazabel Felce, Igor Enparan Araneta, Estitxu Urtizberea Sorzabal eta Aitzol Arroyo Tumas jaun-andreek.

Abstenitu egin dira: Jesús Ignacio Alvarez Yeregui, Xabier Isasi Balanzategui eta Xabier Bengoetxea Erriondo jaunak.

beneficiarios. Lo mismo ocurre con las ayudas para la competitividad, que los beneficiarios serán pocos.

Por otro lado, la Sra. Urtizberea explica que del mismo modo tienen dudas con la puntuación de los criterios de valoración. Afirma que le llama la atención que se concedan 35 puntos en las ayudas a la competitividad, es decir la puntuación máxima, a las empresas que han tomado parte en las actividades organizadas por el Ayuntamiento en los dos últimos años. Manifiesta que no debería ser la variable con mayor puntuación en el contexto actual. Quizás se le debería conceder la ayuda a la empresa que ha protegido o sacado del ERTE a los trabajadores. La Sra. Urtizberea relaciona la propuesta con la situación actual, y considera que en cualquier otro contexto esta variable resultaría buena porque, a su juicio, contribuiría a la integración del pueblo.

Para terminar añade que muchos sectores se quedan fuera de estas subvenciones, por ejemplo la hostelería. La Sra. Urtizberea afirma que pensaban que en el plan estratégico de las subvenciones habría otra línea, pero que no la han encontrado. Por ello afirma que no han entendido muy bien este tema. De todas maneras, teniendo en cuenta la situación actual y que todas las ayudas serán pocas, adelanta que votarán a favor del plan de subvenciones.

Sometida a votación la propuesta es aprobada por doce votos a favor, ninguno en contra y tres abstenciones.

Votan a favor: D. Txomin Sagarzazu Ancisar, D. Juan María Altuna Muñoa, Dª María Serrano Olascoaga, D. Juan Luis Silanes Aguirre, Dª Gotzone Larrarte Campandegui, D. Gonzalo Carrión Insausti, Dª Edurne Etxeburu Eguia, Dª Arantzazu Rojo Gómez, Dª Silvia Emazabel Felce, D. Igor Enparan Araneta, Dª Estitxu Urtizberea Sorzabal y D. Aitzol Arroyo Tumas.

Se han abstenido: D. Jesús Ignacio Alvarez Yeregui, D. Xabier Isasi Balanzategui y D. Xabier Bengoetxea Erriondo.

Ondorioz, **Udalbatzak,** gehiengoz, hauxe **ERABAKI DU:**

**LEHENENGO.-** Hasierako onespena ematea Ekintzailetza sustatzeko eta enpresa lehiakortasuna hobetzeko dirulaguntzak arautzen dituzten oinarrien aldaketari.

Aldaketak honako hauek dira:

*"Oinarri Orokorretan:*

*2. Oinarria*

- *Ezabatzea urteari buruzko erreferentzia oinarri guztietan.*
- *Handitzea zuzkidura ekonomikoa laguntza multzo osorako, eta hala 40.000 €koa izatetik 60.000 €koa izatera pasatzea.*
- *Handitzea lerro bakoitzerako zuzkidura:*

- *I Eranskina Lerroa, Ekintzaileetzaren sustapena, 20.000€tik 25.000 €ra pasatzea*
- *II: Eranskina Lerroa, Hondarribiko txikizkako merkataritza eta zerbitzu establezimenduen modernizazioa, 20.000 €tik 35.000 €ra pasatzea.*

*I. Eranskina*

*Ekintzailetzaren sustapena Oinarri Espezifikoak*

*3. Oinarria Diruz lagundu daitezkeen jarduerak eta zenbatekoak*

*Diruz lagundu daitekeen proiektuarengatik eskaera aurkeztu duen pertsonak eskuratu ahal izango duen gehienezko diru kopurua, pilatu ahal izango diren deskribatutako kontzeptuen multzoarengatik, 1.500€ izatetik 5.000€ izatera pasatzen da, Alde Zaharrean kokatutako proiektuentzat 6.000 €ra igo ahal izango delarik*

En consecuencia, el **Ayuntamiento Pleno,** por mayoría, **ACUERDA:**

**PRIMERO.-** Aprobar inicialmente la modificación de las Bases Reguladoras de las Subvenciones destinadas a la mejora de la competitividad empresarial y para el fomento del emprendimiento.

Las modificaciones son las siguientes:

*"En las Bases Generales:*

*Base 2ª*

- *Suprimir la referencia al año en el conjunto de las bases*
- *Aumentar la dotación económica para el conjunto de las ayudas, pasando de 40.000 a 60.000€.*
- *Incrementar la dotación destinada a cada una de las líneas:*
- *Linea Anexo I Fomento de Iniciativas emprendedoras, de 20.000€ a 25.000€*
- *Linea Anexo II Modernización de establecimientos comerciales minoristas y de servicios en Hondarribia, de 20.000€ a 35.000€.*

*Anexo I*

*Bases Específicas Fomento Iniciativas Emprendedoras*

*Base 3ª Actuaciones objeto de subvención y cuantías*

*El importe máximo de la subvención a obtener por el proyecto subvencionable a la que opte el solicitante, por el conjunto de los conceptos descritos de forma acumulativa pasa de 1.500 € a 5.000€ , pudiendo incrementarse hasta los 6.000€ para los proyectos instalados en el Casco Histórico*

*5. Oinarria Aurkeztu beharreko dokumentuak:*

*Aurkeztu beharreko dokumentazioari erantsi diruz lagun daitezkeen gastuen zerrenda (deialdiari erantsitako ereduaren arabera)*

*II. Eranskina*

*Hondarribiko txikizkako Merkataritza eta Zerbitzu Establezimenduen Modernizazioaren Oinarri Espezifikoak*

*2. Oinarria Pertsona/entitate onuradunek bete beharreko baldintzak*

*Baldintza hau eranstea, 11.a izango litzatekeena: Enpresak gutxienez 12 hilabeteko antzinatasuna izango du JEZn alta ematen zaionetik zenbatzen hasita.*

*3. Oinarria Diruz lagundu daitezkeen jarduerak*

*Ezabatzea dirulaguntzaren xedea izango ez diren kontzeptuei buruzko atalen artean honakoa: "Saltokiaren ekipamendua" atalak espresuki barne hartzen ez duen edozein aktibo", kontuan izanik nahiko zehaztuta dagoela zer gastu ekintzak diren diruz lagungarriak.*

*4. Oinarria Balorazio Irizpideak.*

*Puntuazioaren aldaketa:*

*Azken bi urteetan Hondarribiko Udalak antolatutako jarduera eta kanpainetan parte hartu izana".....35 puntu*

*Diruz lagundu nahi den jarduera hori bera egiten daraman antzinatasuna (JEZen arabera).....35 puntu arte*

*Enplegua sustatzea: Langile 1, 10 puntu/ langile bat baino gehiago, 15 puntu*

*Base 5ª Documentos a presentar:*

*Añadir a la documentación a presentar, que ya figura, la relación de gastos (según modelo anejo a la convocatoria) subvencionables.*

*Anexo II*

*Bases Específicas Modernización Establecimientos Comerciales minoristas y de servicios en Hondarribia*

*Base 2ª Requisitos de las personas/ entidades beneficiarias:*

*Añadir la siguiente condición, que haría la núm. 11: La empresa tendrá que tener una antigüedad mínima de 12 meses desde la fecha de alta en el IAE*

*Base 3ª Acciones subvencionables*

*Suprimir en el apartado referido a los conceptos que no serán objeto de subvención " la adquisición de cualquier otro activo no incluido expresamente en la relación de "equipamiento del local comercial subvencionable", teniendo en cuenta que ya está suficientemente detallado qué acciones de gasto son subvencionables*

*Base 4ª Criterios de Valoración.*

*Modificación de la puntuación:*

*" Que la empresa beneficiaria haya participado en actividades y campañas organizadas por el ayuntamiento de Hondarribia en los últimos dos años .....35 puntos*

*Antigüedad de la empresa solicitante ejerciendo la misma actividad económica subvencionable (según IAE) ..... hasta 35 puntos*

*Creación de empleo: hasta un 1 trabajador , 10 puntos,/ más de 1, 15 puntos*

*Diru-laguntza energia eta jasangarritasunaren hobekuntza neurriak hartzeko erabiltzea 15 puntu*

*Utilización de la subvención en medidas de mejora energética y sostenibilidad 15 puntos*

*5. Oinarria*

*Base 5ª*

*Dirulaguntzaren kopurua guztira 8.000 €koa izango da. 10.000 € arte handituko da Alde Zaharrean*

*La cuantía máxima de la subvención será de 8.000 € . Se incrementará hasta 10.000€ en Alde Zaharra*

*6. Oinarria*

*Base 6ª*

*Aurkeztu beharreko dokumentazioaren artean diruz lagundu daitezkeen gastuen aurkibidea eransten da".*

*Se añade entre la documentación a presentar la relación de gastos subvencionables".*

**BIGARREN.-** Aurreko erabakia hogeita hamar lanegunez jendaurrean jartzea, dagozkion erreklamazio edo oharpideak aurkez ditzaten.

**SEGUNDO.-** Someter a información pública por plazo de treinta días hábiles el acuerdo precedente a efectos de reclamaciones u observaciones que pudieran producirse.

**HIRUGARREN.-** Hartutako akordioa behin betikotzat emango da berriro erabaki beharrik gabe, baldin eta jendaurrean erakusteko epearen barruan inolako erreklamazio edo oharpiderik aurkezten ez bada.

**TERCERO.-** El acuerdo adoptado devendrá definitivo sin necesidad de adoptar nuevo acuerdo, si durante el plazo de información pública, no se presentaran reclamaciones u observaciones

**Eta beste aztergairik ez dagoenez, biltzarburuak bilkura amaitutzat eman du hogeita bat orduetan eta hogeita hamar minutuan, neuk ziurtatzen dudan akta hau eginez. Elektronikoki sinatutako agiria**

**Y no habiendo más asuntos que tratar, la presidencia levantó la sesión a las veintiuna horas y treinta minutos, extendiéndose esta acta que certifico. Documento firmado electrónicamente**

**OE/ Vº Bº**
**ALKATEA/El Alcalde**

15243782A TXOMIN SAGARZAZU (R: P2003700H)
2021.02.17 19:59:21 +01'00'

María Luisa Izquierdo Marculeta
2021.02.17 11:13:48 +01'00'